



Pauso bat gehiago

Espainiako gobernua transexualen eskubideak bermatzeko lege berri bat lantzen dabil. Iraide Legina eta Eider Lauzirika Kili-Kili LGTB elkarteko ki-deek ondo ikusten dute zirriborroa. Legeak transexualitatea despatologizatzen eta sufrimendua arintzen lagunduko duela diote. • 16-17



Galdeketaren inguruko zalantzak argitzen

Hiritik At taldeko Carlos Renedo arkitektoak martxoaren 14ko galdeketa-
ren inguruko zalantzak argitu dizkie herritarrei Durangon egindako lau foro zabaletan. Galdeketa motorrak berotzen hasi da. Kanpaina gaur ipini-ko dute martxan. • 2-3

M8-ko gehigarria

EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO
EGUNA
| MARTXOAK 8



16 AUKERA AZOKA

LANDAKO GUNEA DURANGO

ORDUTEGIA

OSTIRALA : 10:00-14:00 / 17:00-21:00
LARUNBATA : 10:00-14:00 / 17:00-21:00
IGANDEA : 11:00-14:00 / 17:00-19:00

MARTXOAK 5-6-7



   DENDAK BAI
688 738 102
WWW.DENDAKBAI.EUS

GAKOAK

1

Galdera

Ados al zaude PERI1 Trenbidea proiektua gelditzearekin eta irtenbide bideragarri baten azterketa abian jartzearekin, betiere, herritarren parte hartzea aintzat hartuta?

Martxoaren 14an galdera horri BAI edo EZ erantzun beharko diote herritarrek.

2

Martxoak 14

Galdeketa beste hauteskunde batzuetako ordutegia izango du: 09:00-20:00.

Martxoaren 13a hausnarketa eguna izango da.

3

Autobusa

Autobus bat ipiniko dute Landako Gunera joateko (09:00-19:30). Autobus horrek 15 plaza ditu eta horietatik 3 mugikortasun mugatua duten pertsonentzat izango dira.

San Fausto - Larrasoloeta (Durango irratia) - Tabira (Arriluzeaga 11) - San Agustinalde 14/16 - Askatasun Etorbidea 26 - Aramotz Auzunea (Pagasarri 3) - Astepe - Fray Juan de Zumarraga 25 - Landako Etorbidea (autobus geltokia).

4

Mahaiak

Landako Gunean hauteskundeetan ezartzen diren eskolen arabera antolatuko dute boto ematea.

1. sarrera: Institutua, San Fausto eta Maristak.
2. Sarrera: Landako Kiroldetgia
3. Sarrera: San Antonio, Jesuitak, San Agustin, Intxaurrondo, Biblioteca, Pinondo
4. Sarrera: Udala eta Zabalarra

5

51 boluntario

Hauteskunde-mahaietan 51 boluntariok lan egingo dute.

141 herritarrek eman zuten izena galdeketa laguntzeko, eta udalak 51 aukeratu zituen, zozketa baten bitartez.

Informazio guztia: www.galdeketa.durango.eus

“Udal politikan parte hartzea normalizatu egin beharko litzateke”

Martxoaren 14an herri galdeketa egingo dute Durango. Trenbide zaharreko proiektuaren inguruan herritarren zalantzak argitzen ibili da Hiritik At taldeko Carlos Renedo arkitektoa



Carlos Renedo
Lara
Arkitektoa
Bilbo | 1983

DURANGO • JONE GUENETXEA

Gaur ipini da martxan Durango inoiz egin den lehenengo herri galdeketa kanpaina. PERI1 Trenbidea proiektuaren inguruan herritarrek euren iritzia eman ahal izango dute martxoaren 14an. Aurretik gertatzen diren aste bi hauetan, edozein hauteskundetan egiten den legez, kanpaina izango da. Orain arte, Durango Udalak hainbat foro ireki egin du Hiritik Ateko teknikarien laguntzagaz. Galdeketa inguruan herritarrek dituzten zalantzak argitzea izan dute helburu. Carlos Renedo arkitektoa dinamizatu ditu foro horiek.

Galdeketa inguruko foro irekiak egin dituzue. Zein sentsazio duzue? Galdera berdina errepikatu izan dira?

Parte hartzearen aldetik, pozik gaude. Gaia oso konplexua da eta erronka tekniko polita da ertz horiek guztiak jendeari azaltzea. Orokorrean, jendeak ezagutzen du ibilbidea eta egoera. Bestalde, konturatu gara badaudela kezka batzuk, batez ere juridiko eta ekonomikoak, erantzun zaila dutenak. Ez dago erantzun zehatzik, beste norbaiten esku dagoelako, judizializatuta dagoelako edo kalkulak negoziatio baten barruan egin beharko liratekeelako.

Ea elkarrizketa honetan zalantza batzuk argitzen ditugun. Momentu honetara arte onartuta dagoen PERI1 Trenbidea proiektuak zer jasotzen du?

PERIak baimentzen du trenbide zaharreko eremu handi horretan zer egin daitekeen. Geltoki berria

“

Gaia oso konplexua da eta erronka tekniko polita da ertz horiek guztiak jendeari azaltzea”

—

hor egotea bermatzen du. Gelto-kiagaz batera, 8 altuerako eraikin bat ere aurreikusten du, bere sasoian Eusko Trenbide Sarearen bulego zentralak han egoteak ziren. Era berean, erabilpen komertzial batzuk ere baimentzen ditu. Udal ekipamendu bat ere baimentzen du. Ekipamendu hori erlijioso izan behar zen hasieran, baina, gero, soziokulturala izatera pasatu zen, 1.000 metro karratu inguruko partzela batean. Alde erresidentzialean, eraikin erresidentzial bat eta bost etxe dorre aurreikusten ditu. Dorreek 18 altuera izango lituzkete eta 554 etxebizitza aurreikusten ditu,


horietatik 111 babes ofizialekoak. PERIak dioena da dorre horiek 18 altuera izan ditzaketela asko jota, eta gutxienez 9 altuera. 9 altuera badituzte okupazioa altuagoa izango da, eta 18koak badira, orain arteko planoetan daudenak izango lirateke.

Epaitegietan ebazpen bat eman barik dago. Zein da egoera judiziala? Epaitegien ebazpenak zein eragin izan dezake gai honetan?

Ezezkia ateratzen bada, hau da, herritarrek badiote proiektu honegaz aurrera egin behar dela, uste dugu juridikoki irten daitekeen emaitza indargabetzen duela. Baina, baiezkoa ateratzen bada, aukera bi daude. Lehenengoan, herritarrek egiten duten proposamena negoziatuko litzateke udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean. Beste eszenatoki batean, akordioak ez balego, ebazpen horiek ondorioak izan ditzakete. ETSren interesen kontrako ebazpena balitz, indemnitzazio ekonomikoak desagertu daitezke, aurretik hartutako eskubide urbanistikoak bertan behera geratuko lirateke. ETSren aldekoak balira, aukera bat zabaltzen da lurren jabeak, Eusko Jaurlaritzak, indemnitzazio bat eskatzeko.

Noiz heldu daiteke ebazpen hori? Aspaldiko kontua da?

PAUa eta PERIa zeharka erre-



PERI1 Trenbidea proiektuak bost etxe dorre eraikitzea aurreikusten du.

kurtso bakarrean errekurrituta daude; lehen instantzian errekurtsioa ETSren, BFaren eta udalaren alde atera zen, baina bigarren instantzian errekurrituta dago. Bestalde, Durangoko Udalak birpartzelazio proiektua kaltegarritzat jo zuen eta berau bertan behera uzteko eskatu zuen eta sententziaren zain dago. Hitzarmena ere errekurrituta dago, eta hau lehen instantzian forma akatsengaitik bertan behera geratu zen. Ondoren, ETSk errekurtsioa sartu zuen eta sententziaren zain dago.

PERIa bertan behera geratu eta proiektu berri bat martxan ipintzen bada, posible da hori etxebizitzak eraiki barik egitea?

Batzarretan entzun dugun beste mito bat da hirigintzako proiektuagaz trenaren lurperatzea ordaindu behar dela. Trena lurperatzeko proiektua Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen eta inbertsio hori ez dago proiektu honegaz lotuta legalki. Bestalde, gastuen parte bat estaltzeko, eta lurzorua jabea Eusko Jaurlaritza eta Durangoko Udala direnez, hirigintzaren bitartez, parte batean inbertsioa berreskuratu gura zen. Indarrean dagoen PERIak 77.000 metro koadro eraikigarri ditu. Durangoko Planeamendu Orokorra aldatzen bada (HAP-PO idazten ari da), eremu osoa berdefinitu daiteke: erabilerak eta eraikigarritasuna. Bestalde, indarrean dagoen Planeamenduaren arabera eremurako Plan Berezi berri bat egiten bada, gutxienez 22.000 metro koadro eraiki beharko lirake, eta gehienez 127.000. Espazioaren hirigintzako definizioa erresidentziala da zati handi batean eta ulertzen da bizigarria izateko, dentsitate ratio batzuk egon behar direla. Baiezkoak irtetten badu, Plan Berezi baten bitartez, herritarren esku geratuko lirake kopuruak, eta ratio horren

barruan aukera zabala dago. Era berean, PERIagaz etxe publikoak %10 izango lirake, 111 etxebizitza. 2006ko lurzorua legeagaz, etxebizitzak eraikitzea erabakitzen bada %40 izan beharko lirake babesekoak. Proposamen berri bat egingo balitz, babesekoak kopurua handitu egin beharko litzateke. Gai honek foroetan irten du. Posible da etxeak eraiki barik eremu berde bat sortzea? Bai, baina Planeamendu Orokorra aldatu beharko zen horretarako.

Durangoko erdigunean 540 etxebizitza eraikitzen badira, autoen joan-etorria asko haziko litzateke. PERIa egin zenean, mugikortasun azterketarik egin zen?

PERIa onartu zen sasoian ez ziren horrelako azterketak egiten. Mugikortasuna, genero azterketak, inpaktu linguistikoa... Gaur egun plan berri bat egingo balitz, arlo horiek guztiak aztertu beharko lirake. PERIaren momentuan ez zen egin. Ez dakidana da gerora udalak plan berririk egin zuen.

Bizi dugun sasoi honetan, parte hartzea da ardurarik handienetarikoa bat galdeketa aurrean.

Azken hauteskunde prozesuak ikusita, egoera honek ez du laguntzen. Guk parte hartze prozesuetan lan egiten dugu eta iraunkorra izan behar dela uste dugu. Galdeketa parte hartzeko modu bat da, baina badaude beste aukera batzuk ere, tailerrekin eta abar. Udal politikan parte hartzea normalizatu egin beharko litzakeela uste dugu. Onartu behar dugu herritar batzuek euren borondatea adierazten dutela, baina badaude beste kanal batzuk horretarako. Normalizatze aldera, etorkizun batean horrelako ariketak erabiltzen badira, erabaki estrategikoak hartzeko emaitza ezezkoa, baiezkoa zein abstentzioa izan, hori normalizatu egin behar da. Abstentzioa

altua bada, herritarren egoerarengaitik izango da, pandemia-gaitik, interes ezagaitik, desafekzioagaitik... Oso parte hartze handia badago, polarizazio bat dagoelako izan daiteke. Baina emaitza edozein izanda ere, ulertu behar da hori agindu bat dela administrazioek konponbide bat bilatzeko. Horregaitik, gaiari epika apur bat kentzen ahalegintzen gara. Badakigu Durangon mugarri bat izango dela, baina prozesu hauek normalizatu egin behar dira. Galdeketa ondo-rengoa izango da garrantzitsua. Jendearen artean zalantza hori sortu da. Administrazioek galdeketa emaitza errespetatuko duten, hain zuzen ere.

Galdeketa emaitza legalki ez da loteslea.

Legeak ez du onartzen erantzuna lotestea izatea. Baina udaleko alderdi politiko guztiek aitortu dute errespetatuko dutela he-

rritarren iritzia. Eusko Jaurlaritzak gutun baten bitartez azaldu duenez, galdeketa babesten du, eta, azaldu duenez, prest dago emaitza onartzeko minimoki bere interesak ere errespetatzen badira. Horixe da administrazio biek adierazten duten borondatea. Proposamen berri batek irtetten badu, udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik ere prozesu horretan bakoitzak bere interesak mahai gainean ipini beharko ditu.

Zailtasunak izan daitezke administrazio biak ados ipintzeko.

Galdeketa emaitzagaz, herritarrek administrazioari ematen diote agindua, bai Durangoko Udalarri eta baita Eusko Jaurlaritzari ere. Baiezkoak zein ezezkoak irten, negoziazio bat ipiniko da martxan. Garrantzitsua da galdeketa ondoen administrazioak erantzutea eta herritarrek gura izan dutena

gauzatzea. Beste prozesu batzuk kontsultiboak izan dira eta gero ez dira aurrera eramane.

Galdeketa egunari dagokionez, zelan egongo da antolatuta?

Durangoko Udalak oso zehatz eramane du prozedura juridiko guztia. Adostu dute 18 urtetik gorako herritarrek eman ahal izango dutela botoa. Durangon erroldatuta egon behar dute. Udal hauteskundeetako ohiko errolda erabiliko da, parte hartze aukerarik gehien bermatzen duena. Beste kasu batzuetan ez da horrela egin, eta gero inpugnazioak gertatu dira. Botoa emateko gune bakar bat egongo da, Landako Gunea. Bertan, eskolen arabera egongo dira banatuta mahaia. Autobus bat egongo da, 09:00etatik 19:30era, jendea Landako Gunea eramateko.

Kanpainan galdeketa giroa berotuko da? Orain arte, parte hartzea bultzatzeko mezuak entzun ditugu alderdi politikoekin, baina gaur, horrez gainera, baliteke alde batean edo bestean posizionatzea kanpaina martxan ipintzen denean?

Orain arte informazio fasean egon gara eta udalak, horrela erabakita, neutrala izan gura izan du. Orain kanpainaren fasea hasten da. Indar politikoekin egon garenean, edukiaren inguruan berba egin dugu. Denek jarrera neutrala hartu dute, baina ez dakigu kanpaina sartuta iritzi konkreturen bat emango duten. Gainera, egun hauetan espazio bat egongo da kolektibo edo plataformaren batek bere iritzia emateko. Orain arte neutraltasuna eta objektibotasuna izan dira nagusi, baina hemendik aurrera ez dakigu bakoitzak bere argudioak emango dituen.



Durangon egindako batzar informatiboa.



Montevideo kalearen bueltako bizilagun batek 200 durangarrek baino gehiagok babestutako eskaria aurkeztu du osoko bilkuran.

Gaztetxea zena botatzeko akordioa baliogabea da Durangoko udal idazkariaren esanetan

Durangoko Udalak eta URAk gaztetxea izandako eraikina botatzeko akordioa sinatu zuten 2017an, baina, asteen, idazkariak baliogabetzat jo du itun hura, testua ez zelako txosten juridikoekin eta fiskalekin osatu. Eraisketa URari dagokiola dio Herriaren Eskubideak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Gaztetxe lez ezagututako eraikinaren auziak buelta berri bat eman du asteen. Montevideo kalearen bueltako bizilagun batek 200 durangarrek baino gehiagok babestutako eskaria eraman du asteen egindako osoko bilkurara. "Segurtasun eta osasun" arrazoiak direla-eta, "eraikina botatzeko beharrezkoak diren pausoak ematea" eskatu diote udalari. Udalbatza osatzen duten alderdi guztiek aho batez onartu dute eskaria, eta eraikinaren eraisketa gauzatzeko pausoak emango dituztela berretsi dute zinegotzi guztiek.

Baina herritarrek aurkeztutako mozioa onartu ostean ailegatu dira berrikuntzak. Hain zuzen ere, Durangoko Udalak eta URAk 2017an sinatutako akordioak eztabaidaren erdigunera irten duenean. Kontua da eraikina botatzeko akordioa sinatu zutela alde biek 2017ko otsailaren 7an. Bakoitzak 425.000 euro ipiniko zituela adostu zuten. Egunotan, akordio hari heltzeko eskaria egin dio EAJk gobernu taldeari, baina idazkariak osoko bilkuran argitu duenez, testua "baliogabea" litzateke. Ituna ez zen

txosten juridikoetan oinarritu, eta ez zen eraisketa justifikatzeko txosten fiskalik aurkeztu. Beraz, baliogabea litzateke bere esanetan.

Nork bota behar du?

Montevideo kaleko bizilagunak honako galdera hau egin zien zi-

Udalak eraikinaren Ikuskatze Teknikoa aurkezteko eskatu dio jabeari

Durangoko Udalak hilabete-ko epea eman dio eraikinaren jabeari honek eraikinaren egoerari buruzko txosten teknikoa aurkeztu dezan. Arriskuren bat antzemango balitz, konponketak eta neurriak jabeak berak hartu beharko lituzkeela dio udalak. Bestalde, udal arkitektoak argitu duenez, eraikina ez dago hondatzeko arriskuan.

negotzietan: "Nori dagokio, legez, sententzia batek halaxe agintzen duelako, eraikina botatzea edo eraikina botatzea betearaztea?". Bada, udal idazkariaren esanetan, Autonomia Erkidegoko arduradunari dagokio. Eta Elkarrekin Podemos - Herriaren Eskubidea taldeko zinegotziek bilkura amaieran adierazi duteenez, Eusko Jaurlaritzarena litzateke ardura hori. Eta zehatzago esanda, URArena. "Sasoi batean, Iparraldeko Uren Konfederazioak zuen eraisketa hori betearazteko ardura. Baina eskuduntzak Euskal Autonomia Erkidegora transferitu zirenean, Jaurlaritzak hartu zuen ardura hori. Eta nor da hemen uren arduraduna? Bada, URA bera", esan du Jorge Varela zinegotziak.

Talde moreko kideak dioenez, Auzitegi Gorenak eraikina "ilegala" zela, eta, horrenbestez, "bota egin behar zela" ebatzi zuen 1970eko sententzia batean. "Hori egiteko, 1985era arteko epea" zegoela dio. Ordu hartako gobernu taldeak eraikina botatzeko pausorik "zergaitik ez zuen eman" galdetu du Varela.

Boni Macarroni eskainitako margolana erakutsi die Durangoko Udalak haren senideei

Laster, Andra Mariko elizpean ipiniko dute margolana

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Boni Macarrón eta gainerako marxanterak omentzeko, Durangoko Udalak margolan bat ipiniko du laster Andra Mariko elizpean, Boni bera egoten zen arkupean,

hain zuzen ere. Oraindino ez dute omenaldiaren data zehatzik jakinarazi, baina margolana Boniren senideei erakutsi diete asteen. Arantza Orbegoza artistak egin du margolana.



Udal agintariak, Arantza Orbegoza artista eta Boniren familia.

Diagnostikoa Plateruena berriro martxan ipintzeko asmoz

Durangoko Udalak prozesu parte hartzailea abiatuko du udaberrian, Plateruena berriro martxan ipintzeko asmoagaz

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Plateruena kudeatzeko plan berri bat ekainerako prest edukitzea gustatuko litzaioke Durangoko Udalari. Horretarako, prozesu parte hartzaile bat ipiniko du martxan udaberrian, "martxo amaieratik ekainera bitartean". Udalaren aurreikuspenen arabera, bost tailer egingo lirarteke apirilean. Gero, lehenengo fase horretan jasotako ideiak antolatuko lirarteke, eta horiek txosten batean jasoko lirarteke azkenik. Eguaztenean aurkeztu zuten "talde motorea" arduratuko litzateke lan hori bideratzeaz; kultura teknikariak, udal teknikariak eta zinegotziek osatzen dute talde hori. Udalak lehen-tasuntzat hartu du Plateruena berriro ere martxan ipintzea.

"Plateruenaren funtzioak zeintzuk izan beharko lirartekeen identifikatzea gustatuko litzaiguke prozesu honen bitartez", azaldu zuen Mariam Bilbatua zinegotziak. Bilbatuaren berbetan, Durangoko Udalak "proiektu berria" irudikatzen du Plateruenarentzat. "Proiektu berria

Durangoko Udalak proiektu berria irudikatzen du, baina ez zerotik hasitakoa

irudikatzen dugu, baina honek ez du esan gura zerotik hasten garenik. Aurretik egondako esperientziatik ikasiko dugu", esan dute.

anboto ▶

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko otsailaren 26a
19. urtea - 840. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Maristak Ikastetxeko Garapen Jasangarria taldeak urteak daramatza izenari ohore egiten. Mugikortasun ohituretan eragitea eta berau errazteko baliabideak eta erremintak eskaintzea dute helburu. Horren adibide da 2018an martxan ipini zuten ekimen hau: oinez edo bizikletan egindako kilometroengaitik dirua ematen dute.

Maristetako langile guztiei bideratutako neurria da eta ikastetxetik bertatik egindako desplazamenduetarako (enpresetara, mantentze-lanei lotutako erosketak egitera...) balio du. Zehazki, egin dutena da, langile hitzarmenean jasota zuten eskubidea, hau da, kotxe bidezko kilometrajeen ordainketa, mugikortasun jasangarriagoa sustatzeko erreminta legez baliatzea. Kotxea dagoen tokian utzi eta bizikleta hartzen duenak 0,27 euro jasotzen ditu kilometro bakoitzeko; oinez ibiltzea gura duenak 0,5 euro jasotzen ditu kilometroko.

"Ikastetxeari ez dio aparteko gasturik eragiten, eta mugikortasun

Bizikletaren mantentze-lanak egiteko gune bat sortu dute ikastetxean, askotariko erremintekin

Oinez edo bizikletan egindako joan-etorrietarako geroago eta erraztasun gehiago Maristak Ikastetxean

Ikastetxetik egindako desplazamenduen kilometrajea ordaintzen diete bertako langileei mugikortasun ohitura jasangarriagoak sustatzeko; ikasleekin ere zenbait lanketa egin dute arlo horretako kontzientziazioa areagotzeko



Garapen Jasangarria taldeko bederatzi kideak Maristetan, patioan bizikletak uzteko duten aparkalekuan.

jasangarria sustatzeko modu bat da", azaldu du Egoitz Mezok, Garapen Jasangarria taldeko kideak.

Ekimena martxan ipini zutenean, "geroago eta gehiago" dira bizikletan edo oinez mugitzen diren ikaste-

txeko langileak, baina Mezok ez du uste kilometroen ordainketa faktore nagusia denik: "Neurriak izango du bere eragina, baina gehiago da kon-

tzientziazioa eta ohitura aldaketetan izaten ari den garapen bat".

Ikastetxekoak diren bizikleta bi dituzte, eta Mezok uste du inoiz

ere ez direla erabili, normalean bakoitzak bere bizikleta eramaten duelako, baina behar duenarentzat erabilgarri daude ikastetxeko patio-

ko aparkalekuan. Baliabide gehiago ere eskaintzen dituzte. Bizikleta konpontzeko gune bat sortu dute, askotariko materialagaz: puzgai-luak, partxeak, erreminta kaxa bat, bizikletei eusteko euskarria...

Mantentze-lanak zelan egin irakasteko, formakuntza saioak antolatzen dituzte: iaz, Bizkaia-Durango taldeko Agurtzane Elorriaga zuzendaria gonbidatu zuten, eta Marino Lejarreta txirrindulari ohiazagaz berdina egingo dute aurrerago.

Ikasleekin lanketa

Garapen Jasangarria taldeko eragin gune bat ikasleak dira. Ez da erraza, urtero ikasleen erdiak aldatu egiten direlako, baina adin tarte horretan eragiten jarraitzeko asmoa dute. Ildo horretatik, egitasmo bat aurreratu dute. "Mekanika arloko hiru zikloetan erronka bat hasiko dugu hemendik pare bat astera eta helburua da bizikleta bi diseinatu eta eraikitzea", azaldu du taldeko Nagore Lozanok.

Neurri hauek guztiak ez dira oharkabea igaro. Ikasturte hasieran Mankomunitateak egindako gonbidapena onartu eta Cycle Friendly Employer ziurtagiria ateratzera aurkeztu ziren. 2021 hasieran ziurtagiria lortu dute, urrezko kategorian.

Sindikatuak deituta, hainbat mobilizazio egin dute haurreskolen negoziazioa geldirik dagoela salatzen

Haurreskolak Partzuergoagaz egin beharreko batzarra "birritan atzeratu" dela eta "isiltasun" hori negoziazio kolektiboaren aurkako "eraso zuzena" dela salatu dute

DURANGALDEA • J.D.

Denborak aurrera jarraitzen duela eta Haurreskolak Partzuergoaren berririk barik jarraitzen dutela salatu dute LAB, ELA eta STEILAS sindikatuek asteon herri askotan deituriko kontzentrazioetan eta Gasteizen egindako manifestazioan. Eskualdean, Zaldibarren, Abadiñon eta Iurretan kontzentratu dira.

Orain arteko "isiltasunaren" aurrean balorazio bakarra egin daiteke sindikatuen esanetan; "Haurres-

kolak Partzuergoko Zuzendaritza batzordea ez da bildu eta batzordera errebisatzera eraman gura zituzten akordioak ez dituzte eraman". Hori guztia negozio kolektiboaren kontrako "eraso zuzena" dela uste dute.

Sindikatuak haurreskolako langileen baldintzak hobetzeko eskatzen dute. Langileen "behin behineko tasa amaitzea", lanpostuak "egonkortzea", dauden akordioak "errespetatzea" eta sektore horretako aurrekontua "handitzea" dira eskaeratariko batzuk.



Abadiñon egindako kontzentrazioaren irudia.



Turismo Bulegoak Igartua kirol dendaren tokia hartuko du.

Elorriok turismo bulego berria izango du, herri erdi-erdian

Gobernu taldearen esanetan, Elorriok kalitatezko jauzia emango du turismo eskaintzan

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

10 urte beteko dira Elorriok Turismo Bulegoa duenetik. Eta, aurren, beste pauso bat eman eta datozen hileetan turismo bulego berria izatea aurreikusten du Elorrioko Udalak. Udaletik azaldu dutenez, turismoaren eskaintzan kalitatezko jauzia egingo dute, informazioarako eta elkartzeko gune berria herriko erdigunera eramanez.

Otsailaren 11n egindako osoko bilkuran, turismo bulegoa egongo den lokala erosteko kreditu gehiagarria onartu zuten, aho batez. "Lokal berria eta haren ko-

kapena ezin hobeak dira. Aukera paregabea da eta epe laburrean estreinatzea gura dugu, udalerriari merezi duen Turismo Bulegoa emateko. Gaur egungo lokalak gabeziak ditu, eta, ondorioz, gune

Orain arte Igartua kirol denda egoniko tokian ipiniko dute turismo bulego berria

berri horrek kalitatezko zerbitzua emateko aukera berriak eskainiko dizkigu", adierazi du Alazne Mendizabal Turismo zinegotziak.

Elorrioko Udalak azaldu duenez, orain arte Igartua kirol denda egoniko tokian ipiniko dute turismo bulego berria. "Kokapena oso ona da eta Elorrioren onerako izango da. Aurren 10 urte beteko ditugu eta badugu zer ospatu", esan du Idoia Buruaga alkateak.

Oposizioeko alderdi biak ere "pozik" agertu ziren Turismo Bulego berriaren kokapenagaz eta lokal berria erostegaz. "Gure ustez, Elorriorentzat lokal hori erostea inbertsio ona da", adierazi du Mikel Arruabarrena EAJren bozeramaileak.

5G teknologia ez baimentzea erabaki du Elorrioko Udalak

Teknologia biobateragarri eta jasagarri baten aldeko Elorrioko plataformak mozio bat aurkeztu zuen azken osoko bilkuran, eta EH Bilduk eta Podemosek onartu egin zuten

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

5G teknologia edo telefono sistemen bosgarren belunaldia martxan da dagoeneko Euskal Herriko hainbat tokitan. Azkenaldian, zabalpen horregaz batera, 5G teknologia osasunerako arriskutsutzat duten herritarren ahotza ere indarra hartzen dabil eta horren adibide izan zen Elorrioko Udaleko azken osoko bilkura. Bertan, teknologia biobateragarri eta jasagarri baten aldeko Elorrioko plataformako kideek mozio bat aurkeztu zuten, eta, ardura printzipioetan oinarrituta, 5Garen hedapena atzeratzea eskatu zuten. Horrez gainera, teknologia honek

eragin ditzakeen kalteez ohartarazi zieten Elorrioko Udaleko kideei eta bilkurara bertaratu zirenei.

5G teknologiak eragin ditzakeen kalteez ohartarazi zuten plataformako kideek

Plataformak aurkeztutako mozioa EH Bilduren eta Podemosen aldeko botoekin onartu zen, eta, hori horrela, Elorrioko Udalak honako konpromiso hauek hartu zituen: alde batetik, Elorrioko Udalak osasunaren, ingurumenaren eta klimaren ikuspegitik biobate-

ragarriak eta jasagarriak diren telekomunikazioak zabaltzeko eskatuko dio Espainiako Gobernuari. Bestetik, 26 Ghz-ko maiztasun-bandaren inguruko ikerketa egitea eskatuko du, eta horrek osasunerako izan ditzakeen arriskuak zeintzuk diren jakin arte ez erabiltzeko eskatuko du.

Horrez gainera, udalak konpromisoa hartzen du eremu elektromagnetikoekiko esposizioa murrizteko neurriak hartzeko; baita informazio kanpainak ezartzeko eta ingurumenerako eta giza osasunerako arriskurik bako konektibitate mota berriei buruzko ikerketak egiteko ere, besteak beste.

Iurretako Maiztegi eskolako patioan karpa bat ipini dute

Maiztegi eskolako patioan karpa bat ipini dute, ikasleek beste eremu estali bat izan dezaten jolasterako orduan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak karpa bat ipini du Maiztegi eskolako patioan, ikasleek beste eremu estali bat izan dezaten jolasten dabiltzan. "Modu horretan, ikasleentzat zehaztutako burbuilak mantenduko dira", udal arduradunek argitu dutenez.

Udalak diru laguntza eskatu du Eusko Jaurlaritzan karpa berria ipintzeko. Udalaguntza 2020 diru-funtsei eskerrak, kostuaren

%90era arteko diru laguntza lortu dezaketela azaldu dute udal arduradunek

Udalak diru laguntza eskatu du Eusko Jaurlaritzan karpa berria ipintzeko

Gutxienez, ikasturtea amaitu arte mantenduko dute karpa jolastokian.

Erretzeari uzteko ikastaroan izena emateko aukera dago

Durangaldeko Mankomunitateak eta Berrizko Udalak antolatzen dute ikastaroa, eta martxoaren 18an hasiko da

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mankomunitateko Adikzioen Prebentzioarako Zerbitzuak eta eskualdeko hainbat udalek, tartean Berrizko Udalak, erretzeari uzteko ikastaro bi antolatu dituzte. Eurretari bat goizez izango da, 10:00etatik 11:30era. Bestea arratsaldean, 18:30etik 20:00etara. Ikastaroak martxoaren 18an hasiko dira eta parte hartzaileek gehien dituzten udalerrietan egingo direla azaldu dute antolatzaileek.

Saioak bederatzi izango dira eta mediku batek gidatuta egongo dira. Jardunaldiak amaitutakoan, jarraipen saio bat egingo dute.

Izen-ematea 5a baino lehen

Izena eman gura dutenek martxoaren 5a baino lehen egin beharko dute, 94 620 05 20 telefono zenbakira deituta edo prevencion.mdurango@bizkaia.org helbide elektronikora idatzita.

Atxondoko Herri Eskolako jolasguneko txintxaun gunean estalkia ipini dute

Udalak adierazi du euri egunetan txikienei alternatiba bat eskaintzea izan dela lanen helburu nagusia

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken asteotan, Atxondoko Udalak Herri Eskolako jolasguneko txintxaun gunean estalkia ipintzen ibili da, eta dagoeneko amaitu dituzte lanak. Udaletik esan dutenez, euri egunetan txikienei alternatiba bat eskaintzea izan da lanen helburu

nagusia. "Lanak espero baino apur bat gehiago atzeratu dira, baina material egokia behar genuen eta gauzak behar den moduan egin behar genituen. Berrikuntza honek, aisialdirako zegoen beharrian bati erantzuna eman diogu", esan du Xabier Azkarate alkateak.



Dagoeneko ipinita dago txintxaunak estaltzen dituen aterpea.

1. Munduko behirik handiena Abadiñon bizi da. Nola du izena?	2. Zein da Osasuna futbol taldearen ikurrean agertzen den animalia?	3. Zein herritan sortu da Hiketalagun egitasmoa?	4. Non hasi zen Korrika 11?
a) Txiki b) Tremenda c) Handi	a) Arranoa b) Txakurra c) Lehoia	a) Abadiñon. b) Berrizen c) Iurretan	a) Iruñea b) Maule c) Bilbo
5. Zelan deitzen da Elorrioko Inka jatorrizko iturria?	6. Zenbagarren denboraldia du egunean behin mugikorrerako jokoak?	7. Zer pisu izaten du aizkolarien aizkorak?	8. Non jaio zen Xabier Amuriza?
a) Argiñeta b) Iturri-zoro c) Berriozabaleta	a) 3. denboraldia b) 5. denboraldia c) 6. denboraldia	a) Kilo pasatxo b) Bi kilo eta erdi c) Kilo eta erdi	a) Berriz b) Etxano c) Gizaburuaga
9. Zenbat Berbalagun talde daude Durangaldean?	10. Nola amaitzen da atsotitz hau? Urtarrila urik gabe...	11. Azken ikerketen arabera zenbat hizkuntza hitz egiten dira Bizkaian?	12. Zein urtetan itxi zuten euskaldunon egunkaria?
a) 26 b) 20 c) 17	a) udaberrian nahigabe b) otsaila elur gabe c) urtea ogi gabe	a) 80 eta 100 artean b) 100 eta 120 artean c) 120tik gora	a) 2001 urtean b) 2003 urtean c) 2005 urtean
13. Zein urtetan idatzi zuen Bernart Etxeparek <i>Linguae vasconum primitiae euskarazko lehen liburua</i>?	14. Zer esan nahi du etxean ispilu hautsiak eduki lokuzioak?	15. Nolakoa da Bitañoko ura?	16. Nola esaten da Axpe beste modu batean?
a) 1545 b) 1525 c) 1640	a) etxe zaharra eduki b) zori gaitza hurbil eduki c) Etxean iskanbila asko eduki	a) Oso zikina b) Metal ura c) Ur gazia	a) Atxondo b) Asbarrena c) Zelaigana
Izen-abizenak : Herria: Telefonoa:		Erantzun zuzenak markatu, eta entregatu herriko edozein euskaltegitan martxoaren 22a baino lehen. SARIA: 6 kultur saski.	



EVSKARAZ PRAKTIKATU NAHI?
LAGUN BERRIAK EGIN NAHI?

#PRAKTIKATU ETABIZI
11 AUKERA EUSKARAZ PRAKTIKATU ETA BIZITZEKO



DURANGALDEKO Berbalagun

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin, edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat:

Barbataldeak >Gurasolagun >Tailerrak >Txangoak >Mintzodromoak

Berba 639 400 786
lagun
www.durangaldea.blogspot
durangaldea@aek.eus

639 400 786
www.durangaldea.blogspot.com
durangaldea@aek.eus



'Jantzari' dokumentala ikusgai egongo da martxoaren 6an, Mañariko liburutegi zaharrean

Dantza munduak parekidetasunerantz egindako bidea jorratzen du dokumentalak, eta Cine Invisible jaialdian saritu dute



Iurretako belaunaldi askotako dantzariak gainera, tradizioaren inguruan gogoeta egin duten adituek ere parte hartu dute dokumentalean.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Dantza tradizionalen aldaketak handiak gertatu dira azken urteetan genero ikuspuntutik. Gaur egungo errealiterako egoitzen joan dira apurka. Esaterako, Iurretaren kasuan, 2018an, neska-mutilez osatutako ezpa-

tadantzari talde parekide batek debutatu zuen Iurretako plazan lehenengoz, San Migel egunean. Garapen hori 'Jantzari' izeneko dokumentalean jaso da Iurretako dantza taldearen, Bideografik ekoiztetxearen eta ANBOToren arteko elkarlanari eskerrak. Hu-

Mañariko emanaldian parte hartzeko, martxoaren 5era arte eman daiteke izena

rrengo asteetan Euskal Herriko hainbat herritan egongo da ikusgai, tartean Mañarian, Iurretan eta Abadiñon.

Mañarian martxoaren 6an eskainiko dute dokumentala, 18:00etan, liburutegi zaharrean. Bertara joateko aurretik izena

eman beharra dago eta martxoaren 5a izango da horretarako azken eguna, Mañariko Udaletik informatu dutenez. Iurretan, martxoaren 3an eskainiko dute dokumentala, institutuko ikasleentzat, eta Abadiñon martxoaren 12an egongo da ikusgai, 12:00etan, Errota kultur etxean.

Iurretako institutuan eta Abadiñoko Errota kultur etxean ere egongo da ikusgai 'Jantzari'

Eskualdetik kanporako hitzordu batzuk ere zehaztuta daude: Zeanurin martxoaren 8an, Iruenen martxoaren 9an eta Igorren martxoaren 25ean.

Dantzari eta adituen iritziak

Dokumentalerako, 35 lagun elkarriketatu dituzte. Iurretako belaunaldi askotako dantzariak gainera, Euskal Herrian dantza munduan dabilzan eta tradizioaren inguruan gogoeta egin duten adituek ere parte hartu dute egitasmoan. Besteak beste, Kukai taldeko Nerea Vesgak, Duguna taldeko Aritz Ibañezek eta Oier Araolazak parte hartu dute. Bost urterik behin Urriena antolatzen dute Iurretan, Iurretako belaunaldi guztietako dantzariak batzen dituen eguna. 2019an, lehenengoz, talde parekideak beste ezpatadantzariekin aritu ziren; orduko prestaketa eta ospakizuna ere azaltzen dira dokumentalean.

Dokumentalak genero ekitatearen saria jaso zuen iaz, Cine Invisible jaialdian.

EH Bilduk Santamañezarreko tontor ingurua garbitu eta zaintzeko eskatu dio udalari

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko EH Bilduk Santamañezarreko tontor inguruetako egoera salatu du ohar baten bitartez. "2020ko aurrekontu parte-hartzeetan Santamañezar inguruan (ez tontorrean) zuhaitzak landatzeko proposamena egin zen, eta, udalaren enkarguz, 2020ko abenduan hainbat zuhaitz landatu zen tontorrean. Hau ikusita, hainbat herritarrek udalari tontor aldea garbi uzteko eskatu zioten. Alkateak akatsa konponduko zuela esan zuen", adierazi dute. Hile bi joan eta gero, zuhaitzek bertan jarraitzen dutela salatu du EH Bilduk, eta baita "norbaitek" zuhaitzak babesteko hodiak (argazkian) kendu dituela. Otsailaren 15eko Hiri-gintza Batzordean ere salatu zuten gertakaria. Ingurua zaintzeko deia egin diote Zaldibarko Udalari.



Zuhaitzak babesteko hodiak, tontorrean pilatuta.

Abadiñoko Udalak ia 45.000 euro eman dizkie herriko saltokiei

Kopuru hori Gabonetako bonu kanpainako parte hartzaileen artean banatu dutela diote udal arduradunek

ABADIÑO • A.M.


Gabonetako erosketa-bonuen kanpainan, 37 taberna, jatetxe, denda eta zerbitzu-establezimenduk parte hartu zuten. Abadiñoko Udalak 44.700 euro eman dizkie kanpainaren horretan erabilitako bonuen ordainetan. "Herriko saltoki txiki-rik gehienetan erabili dira, janari dendetan, baina baita ile-apaindegi, informatika denda, farmazia, burdindegi, optika, arropa denda, lore denda, paper eta opari denda, zebitzu-establezimendu eta ostalaritzako lokaletan ere", azaldu du Iñaki Rekalde Abadiñoko Ogasun, Ekonomia Sustapen eta Enplegu zinegotziak. Gabonetakoa Abadiñoko Udalak izurrite sasoian antolatu duen bigarren erosketa-

bonu kanpaina da. 1.793 bonu banatu zituen doan, 40 eurorainoko deskontuagaz batzuk. Udalak 553 bonu urdin banatu ditu adin

Abadiñoko Udalak izurrite sasoian antolatu duen erosketa-bonu kanpaina izan da Gabonetakoa

nagusikoentzat, 640 bonu berde 65 urtetik gorakoentzat, 600 bonu arrosa langabeentzat, eta bonu horiak gainerako bezeroentzat. 40, 30 eta 5 euroko deskontuak izan dituzte, hurrenez hurren, herrian kontsumitzeko.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Fisioterapia

PSE: 119/13

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374



Pedagogia

PSE: 63/63

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



Fisioterapia

PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963



Optometria

PSE: 162/13

Naia
Zabala
Azumendi
11587 kol. zk.



• Optimetrian teknika aintzindariak
• Kontaktologia • Haurren ikusmena
• Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
• Syntonic fototerapia • SENA estimulazio
neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometrizentroat.com



Podologia

PSE: 148/13

PAUSOZ Podologia klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147

Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238

Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango



Odontologia

PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara
adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago,
den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com



Odontologia

PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200



Estetika

PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387



Psikologia

PSE: 62/11



JON ARRUBARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

• Antsietatea, estresa, fobiak
• Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Mallabitarrek trafikoari eta inpaktu ekonomikoari buruzko dudak plazaratu dituzte Kirol Hiri berriari buruzko batzarrean

Eibar klubeko arduraduna den Jon Ander Ulaziak herriko ekimenen parte izateko asmoa dutela azaldu du, kirol arloan zein beste arlo batzuetan

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen egunean, Areitio gainean eraikiko duen Kirol Hiri berriari buruzko batzar informatiboa egin zuen Eibar klubak Mallabian. 30 bat herritarrek bertatik bertara entzun zituzten Jon Ander Ulazia Eibarko arduradun nagusiaren eta proiektuko sustatzaileen azalpenak.

Amaieran, herritarren zalan-zak argitu zituzten. Trafikoaren ingurukoa izan zen euretariko bat. Herritar batek galdetu zuen ea Zaldibarretik datorren ibilgailu bat zelan sartuko den herrigunera doan bidera, ezingo delako ezkerretara egin gaur egungo moduan. Futbol klub arduradunek argitu zuten, Areitio gainean, baina apur bat Ermua alderago, errepide nagusiaren alde batean dagoen biribilgunea erdira ekarriko dute. Hantxe aldatu ahalko da noranzkoa.

Beste herritar batek Kirol Hiriak herrian eragin dezakeen inpaktu ekonomikoaren inguruan galdetu zuen. Ulaziak esan zuen herriko ekimenen parte izan gura dutela: kirol eta kultur arlokoetan zein beste esparru batzuetakoetan. Horrez gainera, '0Km' politika dutela esan zuen, eta euren beharrianak inguruko enpresa eta ekoizleekin asetzera dela asmoa.

Beste herritar batek galdetu zuen ea kafetegiaz gainera jatetxe zerbitzurik eskainiko duten. Negozio plana oraindino diseinatu barik dagoen arren, Ulaziak azaldu zuen ez dutela "makroegiturarik" egiteko asmorik. Kirol Hirian sortzen diren beharrianak asetzera mugatuko direla esan zuen, "ogitar-tekoak edo menu arinak" eskainita.

Proiektuaren epeak

Azpiegitura berriari tokia egiteko, aldaketa puntual bat egin behar da Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean. Horretarako, hainbat fase gainditu behar da eta horrek "beste urtebete, beharbada gehitxoago" eskatuko du, azaldu zuten.

Orain tramiteen erdibidean daude, hau da, prozesu parte hartzailean. Herritarrek proiektua ezagutu eta ekarpenak egin ditzakete. Ildo horretatik, Kirol Hiri berriaren gaineko panel informatiboak Mallabiko kultur etxean ikusgai egongo dira martxoaren 31ra arte. Dokumentazioa udaleko webgunean dago. Ondoren, besteak beste, udalak proiektua behin behinean eta behin betiko onartu beharko du.

Hala ere, lan batzuk tramiteekin paraleloan gauzatu daitezke. Proiektuko lurzoru zati bat zigilatu egin behar dela eta hori egiteko lur mugimenduak udaberri honetan zehar hasi daitezkeela aurreratu zuten.

Aparkalekuak

Azpiegitura berriak 260 aparkaleku izango ditu. Ikusle asko itxaroten dituzten partiduetan autobus zerbitzua eskaintzeko asmoa dutela azaldu zuen Ulaziak. Ildo horretatik, Igor Aguirre alkateak gaineratu zuen udala Euskotrenegaz negoziatzen dabilela Areitioko geralekua martxan ipini dezaten.

Hirigunea eta Kirol Hiria errepideari lotuta joango den 800 metroko bidegorri batek lotuko ditu. Azaldu zuten, 2,5 metroko zabalera izango du gutxienez. Bideko zati batean, kanposantuaren inguruan, eskailerak eta eskailera-buruak ipiniko dituzte desnibelari aurre egiteko.



Eibarko gerente Jon Ander Ulazia joan zen astean Kontzejuzarrean batu ziren mallabitarrei azalpenak ematen.



Irudian ikusten den biribilgunea berriaz gainera, beste bat ere egingo dute Ermua alderago.

Trabakuko tarteko radarra ez dago martxan oraindino

Asteon obra zibila egiten dabilta; gero, hainbat pauso faltako dira oraindino radarra jardunean ipintzeko

MALLABIA • J.D.

Jaurilaritzako Trafiko Sailak ibilgailuen abiadura neurtzeko radar bat ipiniko du Trabakua gainean. Egunotan, radar horretaz ohar-tarazten duen kartela ipini dute mendatean, baina horrek ez du esan gura radarra martxan dagoenik. Trafiko Zuzendaritzatik azaldu dutenez, obra zibila egiten dabilta egunotan, eta oraindino hainbat pauso falta dira radarra martxan ipintzeko. Epeei buruz galdetuta, gurago izan dute gutxi

gorabeherako datarik ez zehaztu, eta falta diren pausoak zerrendatu dituzte. Obra zibila amaitu eta beharrezko ziurtagiriak lortu ondoren, radarraren probaldia hasiko dute; hau da, epealdi batean martxan egongo da, jardun osoan, baina ez dute salaketarik edo isunik ipiniko. Epealdi hori gainditzen duenean, azkenengo pausoa emango dute: radarra martxan ipiniko den abisua buletin ofizialean argitaratuko dute.

Otxandion erreka bazter bat egonkortzen dabilta bioingeniaritza teknikak erabilita



Txirtxor inguruan egiten dabilta lanen irudia.

OTXANDIO • J.D.

Txirtxor izenagaz ezagutzen den guneko erreka bazterra egonkortzen dabil URA agentzia. Horretarako, naturagaz errespetuzkoa den bioingeniaritza teknikak darabiltzate, bere sasoian Errekaxiki inguruko erreka bazterrean egin zuten antzera. Orduko hartan, errekatik bertatik hartutako harriekin harresi bat eraiki zuten erreka bazterrean, eta ez zuten hormigoirik erabili. Besteak beste, inguruan sahas adarrak ere landatu zituzten lurra egonkortu zedin.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak bizikletaren erabilera sustatzeko proiektu bat hasiko du aurten. Kontua da udalak lankidetzaz hasi duela Orbea enpresagaz, Foru Aldundiagaz, Bizkaiko Garraio Partzuergoagaz, Deustuko Unibertsitateagaz eta Bredako Unibertsitateagaz (Herbehereak); eta aliantza horretatik hainbat proiektu garatuko ditu bizikletaren erabilera egunerokoan txertatzen joateko. Besteak beste, azpiegiturak, bizikletaren inguruko enpresa-sorkuntza edo Ikerketa + Garapena + Berrikuntza arloko prestakuntza bultzatzeari ekingo diote, elkarlanean.

Zornotzako Udalak adierazi duenez, udalerririk aholkularitza eta proiektu pilotu bat jasoko ditu. Batetik, "teknologia berriekin eta adimen artifizialagaz" lan egingo dute. Bestetik, "mugikortasunaren arloko prestakuntza, enpresa-sorkuntza eta bizikletaren inguruko I+G+B" sustatuko dituzte, eta, azkenik, bizikletaren erabilerarako kontzientziak kanpainak egingo dituzte "ikastetxeetan eta lantokietan", Durangaldeko Mankomunitatean egingakoen antzera.

Proiektua sinatzear

Udal iturrien arabera, "proiektu honetan parte hartzeak berretsi egiten du Zornotzako Udalak

Bizikletaren eguneroko erabilera sustatzeko proiektu pilotua hasiko dute Zornotzan

"Teknologia berriekin eta adimen artifizialagaz" lan egingo duen proiektua izango dela aurreratu dute udal iturriek



bizikletaren erabilera ohiko garrabide lez sustatzeko eta mugikortasun iraunkorrago eta eraginkorrago baten alde egin duen lana". Hitzarmena sinatu barik dago oraindino, baina udalak aurreratu du "laster" sinatuko dutela ituna. Une horretan iragarriko dituzte aurrera begirako xehetasun guztiak. Aurten, Ziklo Plana ere indarrean sartuko dela gaineratu du udalak.

Landetxe berri bat zabaldu dute Garain: Oar Cottage

lazio urte amaieran zabaldu zuten, San Migel auzoko Oar Erdikoa baserrian. Zazpi logela eta apartamentu bat ditu

GARAI • EKAITZ HERRERA

Negozio berri bat zabaldu dute Garain. Landetxe berri bat. Oar Cottage du izena eta San Migel auzoan dago, Oar Erdikoa baserrian. "Abendu amaieran zabaldu genuen negozioa senarrak eta biok", azaldu du bertako arduradun Carmen Cuestak. "Orain urte bi hasi ginen obrekin eta paper kontuekin. Azken txanpara ailegatzan ari ginela etorri

zen koronabirusaren pandemia. Kolpe gogorra izan zen, baina aurrera egitea besterik ez genuen", adierazi du. Landetxe berriak zazpi logela eta apartamentu bat ditu. Ostatu emateaz gainera, gosariak ematen dituzte, eta ahal duten neurrian afariak ematen ere badabiltza, "nahiz eta egoera honegazi zaila den". www.oarcottage.com helbidea dute informazio gehiagorako.



Landetxe berria San Migel auzoan dago.



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

IURRETA Tellitu-n
3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne

Animalia jatorriko elikagai hondakinak edukiontzi marroira martxotik aurrera

Orain arte hondakin begetalak baino ezin ziren bota organikoen edukiontzira



Edukiontzi marroiak 2016an ipini zituzten Durangaldean.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Okela arrastoak, arrain hondakinak, arrautza oskolak,... animalia jatorriko elikagai hondarrak edukiontzi marroira bota ahalko dira martxoaren 1etik aurrera.

Orain arte hondakin begetalak baino ezin ziren bota. Kontua da Bizkaiko Foru Aldundiak moldaketak egin dituela Alonsotegiko tratamendu-plantan, eta, moldaketa horiei eskerrak, aurrerantzean, animalia jatorriko janari hondarrak ere tratatzeko prestatu dutela planta.

Durangaldeko herrietan orain bost urte ipini zituzten edukiontzi marroiak. Ordutik hona hazi egin da hondakin organikoaren bilketa kopurua. "2016an 99.060 kg batu ziren, eta 2020an 107.290

Durangaldeko 1.635 etxek dute izena emanda hondakin organikoa gaika batzeko sisteman

kg", jakinarazi dute Mankomunitateko arduradunek. Gaur egun Durangaldeko 1.635 etxe inguruk dute izena emanda hondakin organikoa gaika batzeko sisteman.

Elkarretaratze jendetsua Zornotzan asteburuko eraso sexista salatzeko

ZORNOTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zapatu gauean mutil batek neska gazte bati eraso egin ziola salatu du Zornotzako Mugimendu Feministak. Eraso hori salatzen, elkarretaratze jendetsua egin zuten astelehen arratsaldean.

Zapatu gauean mutil batek neska gazte bati eraso egin zion eta, Zornotzako Mugimendu Feministak adierazpenak egin ditu. "Ez da mutil honek eraso egiten digun lehenengo aldia. Sareetatik eduki sexualak bidali izan dizkie hainbat neska gazterri. Tabernetan ere hainbat bider ukitu eta jazarri ditu neskak", adierazi dute mugimendu feministako kideek. Horrez gainera, horrelakoak ez direla modu isolatua gertatzen ere salatu dute.

Durangaldea asteen

Ibaizabaleko ikasleen proiektuak 'Precious Plastic Durangaldea' lehiaketa irabazi du

Durango | Bizkaiko Foru Aldundiak, Durangaldeko Mankomunitateak eta eskualdeko hainbat udalek, jasagarritasunaren eta birziklatzearen inguruko kontzientzia sortzeko asmoz, 'Precious Plastic Durangaldea' eta 'I'm Bizi' lehiaketak antolatu dituzte. Lehiaketa biek badituzte dagoeneko irabazleak. Precious Plastic Durangaldea txapelketaren kasuan, Ibaizabal Ikastolako ikasleen proiektuak lortu du lehenengo saria. Ermua BHIko ikasleek ere sari hori irabazi dute.



Durango gazteek izena eman dezakete etxea alokatzeagaitiko laguntzak jasotzeko

Durango | Durango Udalak diruz lagunduko die 2020an alokairuan bizi izan diren 35 urtetik beherako gazteei. Laguntzen ezaugarri batzuk Zabalduko Ditugu taldeko kideekin batu ostean txertatu dituzte. Eskariak egiteko, Herritarren Arreta Zerbitzura edo udalaren egoitza elektronikora jo beharko dute. Eskara presentzialetarako, gazteria@durango.eus helbidera idatzi beharko dute.

Iritzia

ELORRIOKO ALKATEARI, KIROL ZINEGOTZIARI ETA BERDINTASUN TEKNIKARIARI

Elorrioko Udalak aquagym saioak murrizteko hartu duen erabakiaren aurrean galderak dauzkagu.

Iaz 8-9 emakume joaten ginen, baina, aurtun, kutsatzeko beldurragatik, hiru emakume nagusi joaten gara. Dutzarik egon ez arren joaten jarraitzen dugu, gure osasunerako oso garrantzitsua delako.

Zerbitzu publikoa denez, defizitariora izatea ez zaigu arrazoi nahikoa iruditzen zerbitzua desagerrarazteko. Hainbat galdera sortzen zaizkigu.

- Parte hartzen dugun denak emakumeak gara. Non geratzen dira emakumeak laguntzeko konpromiso guztiak?

- Denak jubilatuak gara. Non geratzen da nagusien kirol jarduerak bultzatzeko plana?

- Kirol jarduera honek gure osasun fisikoa eta mentala hobetzen laguntzen digu, batez ere pandemiaren aurrean. Non geratzen da herritarren osasuna zaintzeko ardura? Non dago Elorrio Osasuntsua?

- Futbol zelaiko argiteria garrantzitsuagoa da gure kirol jarduera baino?

Egoera honen aurrean, gure eskaria argia da: kiroldegiko zerbitzuak ez murriztea, ez gurea eta ez beste inorena, taldean askoz gutxiago gauden arren, pandemia egoera honetan saio hauek gure osasunerako ezinbestekoak dira eta.

Gure eskaera kontuan hartuko duzuelakoan.

Elorri, 2021eko otsailaren 12an

OHARRA: Udalak ez zigun abisatu murrizketak egiteko asmoa zuela, eta otsailaren 11 azken eguna zela esan zigun monitoreak. Gure harridura eta haserrea neurrigabeak dira, eta, gainera, ez digute inolako erantzunik eman. Astia eduki dute.

Maixa Buldain, Elorrioko Aquagym taldeko hiru emakumeren izenean.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

2021ean ere ez da egingo Zornotzako Udaberri Klasikoa lasterketa

ZORNOTZA • M.Z.

Amorebieta Txirrindulari Elkarteko kideek azaldu dutenez, 2021ean ez da Zornotzako Udaberri Klasikoa egingo. "Pandemiak eragindako ziurgabetasunak eragotzi egiten du maila honetako ekitaldi bat antolatzea", esan dute elkartekoek. Hori dela eta, 2021eko lasterketa bertan behera uztea erabaki dute. Hala ere, elkartekoek eskerrak eman gura izan dizkiete boluntario guztiei, herriari, Zornotzako Udalarri eta babesle guztiei. Maila nagusiko lasterketa egingo ez den arren, kadete, jubenil eta 23 urtez azpiko lasterketak egingo direla jakinarazi du Amorebieta Txirrindulari Elkartek. 2022an lasterketa egiteko asmoa dutela gaineratu dute.

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiakurre, 8 IURRETA

946 202 768

Arzabia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO

944 071 791 - 692 859 779



saltsan.com

Egoera berezi honetan
MAKALLAU SALTSAN
KATERIN zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako,
telefonoz edo whatsapp bidez gugaz
kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezailetanerezureondoan



Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403



946 200 492



**BFA
DFB**

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Ekitaldi sorta Martxoaren 8a gogora ekartzeko

Kontzentrazioak, tailerrak, antzerki emanaldiak, kontzertuak, berbaldiak eta beste hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Durangaldean

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Martxoaren 8a begira, eskualdeko hainbat herritan ekitaldi sorta antolatu dute. Abadiñon, Anbotoko Mariren inguruko ikus-entzunezkoa proiektatuko dute. Anderea dokumentala emango dute martxoaren 5ean Errotan (dokumentala eta solasaldia euskaraz) eta martxoaren 18an Txanportan (dokumentala gaztelaniaz). Yolanda Mazkiaranek zuzenduriko dokumentalak Mari edo Anbotoko Damaren figura lantzen du. Horretarako, euskal mitologian adituak diren hainbat ikerlari elkarrizketatu ditu altsasuarrak. Felix Guerenabarrena eta Jose Inazio Hartsuagaz gainera, Toti Martinez de Lezea eta Josu Naberan idazleek ere parte hartzen dute.

Bestalde, Abadiñon kontzertu berezia prestatu dute martxoaren 12rako. Bidane Txopitea sopranoak abestuko du, Iker Ruiz de la Alegria pianistaren laguntzagaz. Onintza Azkaratek eta Joana Keenek ere abestuko dute Amaia Jaio biolontxelistak eta pianistaren laguntzagaz.



Mugimendu feministak Zornotzan antolatutako mobilizazioa.

Berrizen, El Salvadorreko abortu delitua egotzita espetxeratu dituzten emakumeei omenaldia egingo diete diziplina anitzeko ikuskizunagaz, martxoaren 3an, kultur Etxean, 19:00etan. Hainbat ekitaldi gehiago antolatuko dituzte Berrizen; tartean, Alice Worder

abeslari madrildarrak kontzertua eskainiko du martxoaren 6an, Kultur Etxean, 19:00etan.

Mendi martxa

Elorrioren emakumeentzako mendi martxa antolatu dute. Bost orduko ibilaldia izango da eta zailtasun ertainekoa izango da, antolatzaileek azaldu dutenez. Martxoaren 6an izango da hori eta 08:30ean irtengo dute, plazatik. Bisita gidatua ere antolatu dute Argiñetara, martxoaren 13rako. Elorrioko egitarauaren barruan, zaintza lanaren eta zaintzaileen inguruko mahai-ingurua antolatu dute martxoaren 9rako. Isabel Otxoa Bizkaiko Etxeko langileen ELkarteko ekintzailea eta Savina Lafita Errortik Kooperatibako kidea izango dira hizlariak. Alazne Mendizabal Elorrioko berdintasun zinegotzia izango da moderatzailea.

Karmele Jaio idazleak 'Emakumeak eta literatura' berbaldian parte hartuko du lurretan

Karmele Jaio lurretan

'Emakumeak eta Literatura' berbaldia antolatu dute lurretan, Martxoaren 8ko egitarauaren barruan. Gai horren inguruko gogoeta egiteko, luxuzko gonbidatua izango dute: Karmele Jaio idazlea. Josune Muñoz Skolastikako kideak gidatuko du berbaldia. Sarrera presentziala gonbidapenagaz izango da. Berbaldia streaming bidez jarraitu gura dutenek youtubeko kanalean ikusgai izango dute martxoaren 3an, 18:30ean. Izena emateko, email bat eta telefono zenbaki bat ipini dituzte (whatsappa): biblioteka@iurreta.eus eta 688863736.

Zaldibarren, mindfulness tailerra egingo dute martxoaren 3an eta 10ean. Gainera, 'Zaldibar indarkeria matxistaren aurka seinaleak'


Elorrioren emakumeentzako mendi martxa antolatu dute. Bost orduko ibilaldia izango da

El Salvadorren abortu delituagaitik espetxeratutako emakumeak omenduko dituzte Berrizen

ekimena aurkeztuko dute martxoaren 8an, eta elkarretaratzea egingo dute Artiako bidegurutzean.

Bestalde, Zornotzan Emakume anitzen eguneroko borroka erakusketa

antolatu dute Zelaieta zentroan. "Desberdintasuna, indarkeria, arrazakeria, kolonialismoa eta etengabeko mehatxua gorabehera, euren eskubideen alde borrokan ari diren emakume guztien aurpegiak erakusten dituzten irudiek osatzen dute erakusketa hau", diote antolatzaileek.



MARTXOAK 3
EMAKUMEAK
El Salvadorren abortu delitua egotzita espetxeratu dituzten emakumeei omenaldia.
Disziplina anitzeko ikuskizuna
19:00. Kultur Etxea

MARTXOAK 6
ALICE WONDER
Kontzertua. 19:00. Kultur Etxea

MARTXOAK 8
Emakumeen Nazioarteko Eguna

MARTXOAK 12 - 14
LA BODA DE ROSA
Pelikula. 19:00. Kultur Etxea

MARTXOAK 13
ATZERRIAN LURRA GARRATZ
Antzerkia. 19:00. Kultur Etxea

MARTXOAK 26 - 28
LAS NIÑAS
Pelikula. 19:00. Kultur Etxea

“Mugimendu feministak sarritan salatu du zaintzan krisi izugarri bat dagoela, eta pandemiak ere erakutsi du hori”

Udalak mahai-ingurua antolatu du Errotik kooperatibak zaintza eredu eta sistemari buruz egindako diagnostikoa aurkezteko. Martxoaren 9an izango da, 18:00etan



ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak horrela eskatuta, Errotik kooperatibak egungo zaintza eredu eta sistemari buruzko diagnostikoa egin du. Diagnostiko hori datorren martxoaren 9an aurkeztuko dute, 18:00etan. ANBOTOK ikerketa horretan parte hartu duen Savina Lafita Solé Errotikeko kideagaz berba egin du.

Azken hile hauetan, Elorrioko zaintza ereduari buruzko diagnostikoa egin ibili zarete. Zeintzuk dira ateratu dituzuen ondorio nagusiak?

Diagnostikoa forma ezberdinen bitartez egin dugu eta hainbat beharrian topatu ditugu. Gure diagnostikoa hiru zatitan banatu dugu. Alde batetik, familia eremuko zaintzaileak daude. Hau da, mendekotasuna duten senideak zaintzen dituztenak. Bestetik, etxean norbait zaintzen lan egiten dutenak kokatu ditugu. Eta, azkenik, instituzioetan zaintza alorrean lan egiten dutenak.

Ikerketa egiterakoan, hainbat gabezia aurkitu dugu hiru alorretan. Familia esparruan esaterako, zaintzailerik gehienak emakumezkoak direla ikusi dugu, eta

emakume nagusiak direla. Gehienek diote dituzten zerbitzuak ez direla nahikoa, eta euren denbora libre, gehiengo, mendekotasuna duten familiako kideak zaintzen ematen dutela. Beraz, lan karga horrek euren osasun fisiko eta mentalean eragiten du. Hori kontuan hartuta, euren familiarete-

“Bagenekien oso sektore prekariora zena, baina ikusi dugu informazio falta izugarria dagoela”

koak zaintzeko bitarteko gehiago izatea oso garrantzitsua dela diote; baita espazioak sortzea ere, euren beharrian berdintsuak dituzten pertsonekin horiek partekatze, besteak beste.

Lanari dagokionez, hau da, familia batek mendekotasuna duen pertsona bat zaindu ezin duenean, kanpoko pertsona bat kontratatzea jotzen du. Etxeko eremu horretan hainbat kontu

gertatzen da, eta guk ia ezin dugu eskurik hartu horretan. Dena familiaren borondatearen menpe geratzen da. Bagenekien oso sektore prekariora zena, baina diagnostikoari eskerrak detektatu dugu informazio falta izugarria dagoela, bai emakume zaintzaileen partetik, baita familien partetik ere. Elkartzeko guneak falta dituztela esan digute, herrietan batez ere, bertan informazioa emateko, adituekin berba egiteko eta aholkularitza eskaintzeko, besteak beste. Gainera, konturatu gara desinformazio handia dagoela, lan osasuneko kontuetan batez ere, eta lan hau baztertuta geratzen dela laneko arriskuen prebentzioko legetik. Elorrioko Udalak eta Mankomunitateak lan handia egiten dute arlo honetan, baina pandemia dela-eta zerbitzu hauek bertan behera utzi zituzten aste askotan, zerbitzuak oso beharrezkoak ziren sasoian, hain zuzen ere. Familiek esan izan digute zerbitzu hauek bizia ematen dietela, izan ere zenbait laguntza mota jasotzen dituztelako bertatik. Laguntzetariko bat arlo psikologikoa da.

Zelan eragin du pandemiak arlo honetan?

Bagenekien gabezia izugarriak zeudena arlo honetan, baina horiek oraindino handiagoak direla agerian uzteko balio izan digu pandemiak. Mugimendu feministak sarritan salatu du zaintzan

“Pandemia dela-eta, denak gainezka egin du, baina bizitzak aurrera jarraitzen du eta zaintza ezin da eten”

krisi izugarri bat dagoela, eta pandemiak ere erakutsi du hori. Pandemia dela-eta, denak gainezka egin du orokorrean, baina bizitzak aurrera jarraitzen duela ikusi dugu, eta zaintza ezin dela eten. Esaterako, hainbat eta hainbat ekintza bertan behera geratu dira pandemia sasoian, baina zaintza lanek hor jarraitzen dute. Gainera, herri

askotan, tartean Elorrioren, zaintza sareak sortu eta antolatu dira beharrian izan dutenei laguntzeko. Beraz, esan daiteke pandemia koktel handi bat izan dela, eta horrek batez ere zaintzaileengan izan duela inpaktu handia. Bata dela edo bestea dela, asko eta asko lanik barik geratu dira. Eta hori gutxi balitz, arazo handiak izan dituzte instituzioek emandako diru laguntzak jasotzeko. Eta borrokatu egin behar izan dute laguntza horiek jaso ahal izateko.

Behin diagnostikoa eskuetan duzuela, zeintzuk dira hurrengo pausoak?

Elorrioko analisi orokorra egiteaz gainera, parte hartzaileekin (guztira, 53 kidek parte hartu dute: 43 emakume, 6 gizonezko eta euren sexua zehaztu ez duten 4 pertsona) batera hainbat arazo edo gabezia detektatu dugu. Eurekin elkarlanean, gabezia horiei konponbidea ematen ahalegindu gara, eta orain udalaren esku geratuko da horiek aztertzea. Baita horiek praktikan ipintzea ere.

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

ELORRIOKO EMAKUMEOK*

MUNDUKO EMAKUMEekin BAT

MOBILIZAZIOA **MARTXOAREN 8AN PLAZARA!**

Adi egun hauetako ekintza guztiei!

MARTXOKO EGITARAUA

M6 MENDI MARTXA (Emakumeentzat)

8:30 PLAZAN

Aurten Elorrioren hasi eta amaituko da. 5 orduko ibilbidea. Zeilatasun ertaina. Eraman zure janaria.

Doan.

Izena eman | berdintasuna@elorrio.eus - 94 657 08 09

M8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

18:00 UDALETXEO ATARIAN

Elorrikerrek eta ikasleek egindako bideoaren ikuskizuna: zaintza-lan eta zaintzaileen ikusgarritasuna.

M9 MAHAI-INGURUA Elorrioko zaintza-lanak eta zaintzaileak

18:00

Hizlariak: Isabel Otxoa, Bizkaiko Etxeko Lengileen Elkarte (ATH-ELE) ekintzaile eta EHUKo Lan Zuzenbideko irakaslea

Savina Lafita, Errotik Kooperatiba, Elorrioko egoeraren ikerlaria

Moderatzailea: Alazne Mendizabal, Elorrioko berdintasun zinegotzia

Aurrez aurre 15 pertsonentzako lekua. Telematikoki, nahi beste.

Doan.

Izena eman | berdintasuna@elorrio.eus - 94 657 08 09

M13 BISITA GIDATUA: ARGINETAKO ALTZORRA (Emakumeentzat)

Turismo bulegoren eskutik.

11:00 GAZTELANIAZ | 12:00 EUSKARAZ

Talde txikia.

Doan.

Izena eman | Turismo bulegoan - 94620164 | berdintasuna@elorrio.eus - 946570809

ZINEA

Martxoak 6-7-8 (19:00): **VOLVER A EMPEZAR (HERSELF)** Gela: feminismoa.

Martxoak 14-15 (19:00): **LAS MIL Y UNA** Gela: Narabeak eta lesbainismoa.

Martxoak 21-22 (19:00): **ENTRE NOSOTRAS** Gela: Zaborzuzko eta lesbainismoa.

Martxoak 27-28-29 (19:00): **THE ELORIAS** Gela: feminismoa.

ZUZENAKO IKUSKIZUNAK | ESPECTÁCULOS EN DIRECTO

Martxoak 5 (19:00): **YO NUNCA, KRISOL** (castellano).

Martxoak 26 (19:00): **ATZERRIAN LURRA GARRATZ** (euskara).

www.arriola.eus - 946 583 192

ARRIOLA

Elorrioko udala

"Zertarako den trans legea? Bada, izena eta sexua aldatu gura dituenari amaierarik bako prozesu psikologiko bat ez pasarazteko"

Espainiako gobernua transexualitateari buruzko lege berri bat lantzen dabil. Herritar transexualei eskubide eta aukera berriak eskaini gura dizkie, horregaz transexualitatea despatologizatzeko eta sufrimendua aurrezteko. Iraide Legina eta Eider Lauzirika Durangoko Kili-Kili LGTB elkarteko kideak dira. Begi onez ikusten dute lege proposamen berria.

TRANSEXUALITATEA • EKAITZ HERRERA

Aldaketa haizeak datoz Madril aldetik. Espainiako gobernua transexualen eskubideak bermatzeko lege proiektu bat prestatzen dabil asteotan, eta transexualen kolektiboak egindako "zor historiko" bati erantzun gura dio testu berriagaz. Irene Montero Berdintasun ministroaren berbetan, "transexualitatea despatologizatu" gura du lege berriak. Duragoko Kili-Kili LGTB elkarteko kideek begi onez ikusten dituzte zirriborroak planteatzen dituen puntu nagusiak. "Ondo ikusten dut. 2007ko legea aspaldi geratu zen zaharkituta, eta haren ondotik etorritako Euskadiko legeak aurrerapausoa ekarri zuen", azaldu du Iraide Leginak (Zornotza, 1989). "Beti esan izan dut 2007ko legea abiapuntu bat izan zela. Lege berri honek salto handia dakar.

Beharbada ez du ezer behin betiko itxiko. Baina orain hutsune batzuk betetzen badira, eta hurrengoan ere beste apurtxo batzuk betetzen badira, bada, modu horretan bidean aurrera egiten arituko gara. Pausoz pauso joatea ondo dago", adierazi du.

1. ZER DIO ZIRRIBORROAK?

Alternatibak binarismoari

Eta zer dio lege zirriborroak? Bada, hainbat gauza, baina honako hauek dira aldaketa nagusiak: Batetik, Nortasun Agiritik generoa ezabatzeko aukera jasotzen du zirriborroak. Gizon-emakume binarismoan identifikatzen ez diren herritarrek ez dute bat ala bestea direnik adierazi beharrik izango. Eta erabaki hori aplikagarria izango da lan munduan, osasungintzan edo hezkuntzan. Bestetik,

genero identitatea modu askean aldarrikatzeko aukera jasotzen du zirriborroak. Hau da, orain arte, generoa aldatu gura zuenak mediku baten edo psikiatra baten txostena behar zuen ezinbestean, eta lege zirriborroak jasotzen duenaren

“

Hauxe da oinarria: babes legalik barik egon direnei babes legala ematea”

EIDER LAUZIRIKA

arabera osasun txosten hori ez da aurrerantzean beharrezkoa izango. Nahikoa izango da norbere borondatea aldarrikatzea. Zirriborroaren beste atal batek adinari egiten dio erreferentzia. Ez da adinez nagusi izan beharko sexuari lotutako erregistroan aldaketak egiteko. Nahikoa izango da 16 urte baino gehiago izatea. Eta 12 urtetik 16 urtera bitartekoek gurasoen edo tutore legalen baimena baino ez dute beharko. Azkenik, osasungintzari dagokionez, Espainiako osasun sistemak bere gain hartuko lituzke hormona tratamenduak, genital-ebakuntzak edo ahots terapiak.

2. ZEIN HELBURU DU?

Sufrimendua arintzea

Lege berriak helburu bat du: transexualitatea despatologizatzea. Edo, beste era batera esanda, egungo genero moldeak pertsona transsexualengan eragiten duen sufrikarioa kentzea. Iraide Leginak ondo daki zer den hori. "Sekulakoak" pasatu arazi zizkion orain urte batzuk, transitoa egin zuenean. "Esaten zidaten forntse batengandik pasatu behar nuela, noiz eta legeak halakorik eskatzen ez zuenean. Hori izugarria izan zen. 15 edo 30 egunean egin zitezkeen paper kontuak izugarri luzatu ziren. Ez dakit azkenean kasualitatez-edo izan ote zen, baina irakasle batek nire auziaren berri izan zuen eta handik egun gutxira dei bat jaso nuen Durangoko auzitegitik. Horri eskerrak dena bizkortu zen. 18 egunean Nortasun Agiri berria nuen. Hori guztia oso gogorra izan zen. Prozesu hori dena kentzen bada, aurrerapauso bat da", azaldu du.

Eta hori halaxe dela ziurtatzeko, psikiatraren edo medikuaren oniritzirik ez da beharko bakoitzak bere generoa modu askean aldarrikatzeko. "Psikiatrarenera joaten nintzen aldiro, epaitua izaten ari nintzen sentipena nuen. Nire artean nioen: epaiketa bat gura badut epaitegira joango naiz. Hau ez da tokia. Beraz, psikiatraren figura kendu behar da? Psikiatra batek egon beharrean psikologo batek egon beharko lukeela esango nuke. Laguntza edukitzea da behar dena. Norberari kosta egiten zaio bere burua onartzea, eta familiari ere beste horrenbeste. Psikiatraren figura hortik kentzea aurrerapauso bat da. Altxa dezala eskua noiz edo noiz psikologoaren beharrik ez duenak", adierazi du Leginak. Kili-Kili elkarteko Eider Lauzirikaren (Durango, 1997) esanetan ere, horixe da jarraitu beharreko bidea. "Teoria eta korrante asko sortzen da gai honegatz, baina bat da oinarria: babes legalik barik egon diren horiei babes legala ematea. Zertarako den lege hau? Bada, paperetako izena eta sexua aldatu gura dituenari prozesu psikologiko amaigabe bat ez pasarazteko".

3. ZERGAITIK SORTU DA EZTABAIDA? Korronteak feminismoan

Lege zirriborroak eztabaida sortu du mugimendu feministaren barruan. Korronte batzuek ez dute testua begi onez ikusten. Haien esanetan, lege berriak atzerapauso bat ekarriko du berdintasunaren bidean. Emakumea subjektu lez itxuraldatuko litzatekeela diote, eta gaineratzen dute indarkeria matxista aterpetzeko aukerak areagotuko liratekeela testu berriagaz. Espainia aldean zalaparta handia sortzen ari dira ahots horiek. Euskal Herrian, oster, ez. Hemengo mugimendu feministan gaia landu den arren, ez da halako gatazka girorik sortu. Dena dela, Leginak inoiz mespretxu batzuk jaso dituela dio: "Elkarreetan sartu nintzenean, feminista askok ez ninduten emakume lez ikusten. LGTB kolektibo barruan ere bizi izan ditut halakoak. Lesbiana batzuen partetik entzun behar izan dut hilekorik ez dudanez ez naizela emakumea. Baina, tira. Arazo hori haiena da. Iruditzen zait ahots horiek berdintasunaren alde borrokatzen dutela genero binarioen joko-zelaian,



baina, gero, ahaztu egiten dutela binarismo horri iskin egin gura dioten herritarrek ere badaudela".

“**Psikiatrarenera joaten nintzen aldiro epaitua izaten ari nintzen sentipena nuen”**

IRAIDE LEGINA

4. AURRERA BEGIRA, ZER?

Etiketarik bako hezkuntza

Gaiari hezkuntzatik aurre egiteko beharrezkoak azpimarratu dute Kili-Kili elkarteko kideek. Badabilta aurrera begirako lanetan. "Datorren urteari begirako proposamenak lantzen gabiltza, horiek udalari eta hezkuntza komunitateari aurkezteko", azaldu du Eider Lauzirikak. Bide horretatik, etiketarik bako etorkizun bat margotu gura du Leginak. "Nik ez dut neure burua trans lez ikusten. Transexualitatea prozesu bat da. Batzuek izena aldatu gura dute. Beste batzuek hormonak hartu gura dituzte. Hainbatek ebakuntza gura dute. Baina kaletik banoa eta neure burua trans lez definitzen batut, badirudi beti etiketa bati lotuta joan behar dugula. Zergaitik joan behar dugu etiketa batek lagunduta?", galdetu du.

Bada, erantzunak bilatzeko saioa da dagoeneko.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
DIA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES
2021

Iurretako
Elezateko Udala

Otsailak 20

11:30 Gaiuria Kultur Gunea
V. EMAKUMEEN MUNDU MARTXA

Zubi guztien gainetik, mugarik ez! Transnazionalik ez!

[Irur-Hendaia herrien arteko mugarako zapiak margotzeko (GONBIDAPENAREKIN, beharrezko segurtasun neurriak betez)]

Martxoak 3

18:30 Ibarretxe K.E.
EMAKUMEAK ETA LITERATURA - BERBALDIA

KARMELE JAIO
Dokumentalilea
Jaime Muñoz (Skolastika)
Hizkuntza EUSKARA

PRESENTZIA
Sarrera gonbidapenarekin

ONLINE
Bestakiko streaming bidez jarraitu ahal izango da. Gure gurelako kontseioan ere jarraitu izango da.
Bidei e-maila/hutazko sarrera ematen da, e-maila eta telefonoz ere.

Epea / Martxoak 3 - Otsailak 12:30 Gaiuria
Gizarte-ongizate@iurretako.eus / 94 621 53 72

Martxoak 5

19:00 Ibarretxe K.E.
ANTZERKIA

"ESCÚPIDO AMOR" AITZIBER IZQUIERDO

Sarrera gonbidapenarekin

Martxoak 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna

19:30 Askondo
ADIERAZPENAREN IRAKURKETA eta "KANDELADA MOREA"

GONBIDAPENAREKIN, beharrezko segurtasun neurriak betez.

Ibarretxe Kultur Etxea
gizarte-ongizate@iurretako.eus / 94 621 53 72



Martxoak

8

AMOREBIETA-ETXANO · 2021

*Emakumeen
Nazioarteko Eguna*

Antolatzailea :



ARGAZKI ERAKUSKETAK

Martxoak 1 - 31 Zelaietan

“Emakume anitzen eguneroko borrokak”

Lagun Artean Elkartea

Martxoak 5 - 18 Herriko Plazan

“Emakume Baserritarrak”

Gaittun Elkartea,
Itsas Landa Ingurune Emakumeak

**KONTZENTRAZIOA ETA ADIERAZPEN
INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA**

Martxoak 8

Herriko Plazan

Ordua: 12:00

GAZTE TXOKOAN

Martxoak 5 Gazteei zuzenduta

Ordua 18:30

**Zerbitzu sexologikoarekin
ekintza berezia**

Martxoak 7

Jolasa

“Emakumeen Memory”

Martxoak 8

Lehiaketa

Argazki lehiaketa instagramean

IKASTETXEETAN

Ikasleen familiei zuzenduta
Aurretiaz izena emanez

Martxoak 9

Online hitzaldia

Ordua: 18:00

**Ba ote dago matxismorik
gure seme-alaben
hezkuntzan?**

ANTZERKIA

Martxoak 14 Zornotza Aretoan

Ordua: 19:00

Antzerkiaren aurkezpena

**“Angela, verso
suelto de Iparragirre”**

Durungaldean zapiak bildu dituzte Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxaren V. nazioarteko ekintzan

Emakumeen Mundu Martxako kideek Durangoko, Iurretako, Berrizko eta Zaldibarko emakumeen oihalak batu dituzte

DURANGO • E.H./A.M.

Martxoaren 6an amaituko dute Emakumeen Mundu Martxaren nazioarteko ekintza. Martxak migrazio politikak eta transnazionalen jarduna salatuko du bosgarren edizio honetan. Otsailaren 20an hasi zen ekintza, eta eguaztenean Durangaldera heldu zen. Durangon eginiko harrera ekitaldian, inguruko herrietan jositako zapi aldarrikatzaileak batu zituzten; Durangoko, Iurretako, Berrizko eta Zaldibarko emakumeek eginiko oihalak batu zituzten. Euskal Herri osoan zehar batu dituzte oihalak.

Nazioarteko ekintza iazko urrian abiatu zuten munduko hainbat emakumek, izurritearen eraginez, baina Euskal Herrian otsailera arte atzeratu da. Martxoaren 6an amaituko da, Irun eta Hendaiaren arteko mugan. "Mugako zubiak bere sinbologia du, zubiak ez dute esangura bera pertsona guztientzat: inoiz jendea konektatzeko baliagarri izan diren zubiak harresi bilakatu



Eguazteneko argazki bat.

dira", azaldu du Ainhoa Olaso mugimendu feministako kideak. Euskal Herri osoan zehar batutako zapi aldarrikatzaileekin estaliko dute muga martxoaren 6an. Horrez gainera, dossier bat idatzi dute gaiari buruzko hausnarketa sustatzeko. www.emakumeen-mundumartxa.eus webgunean dago eskuragarri.

Nazioarteko ekintzak migrazio politikak eta transnazionalen jarduna salatuko du edizio honetan

Bosgarren martxa

Emakumeen Mundu Martxa 1995ean jaio zen; *Bread and roses* martxa antolatu zuten Kandan. 2.000. urtetik nazioarteko ekintzak egiten dira, bost urtean behin, emakumeen bizitzan garrantzitsua den gairen bati helduta. Egungo plataforman 70 taldek parte hartzen dute.

Asistentzia lanetan dabilzan emakumeek jasandako zapalkuntza aztertuko du Itaiak, berbaldi bi eskainita

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Itaia emakumeen antolakunde sozialistak berbaldi bi antolatu ditu lan asistentzialak emakume beharginengan sortzen dituen zapalkuntzak zeintzuk diren aztertzeko. Hitzaldiak hilaren 6an eskainiko dituzte, Elorrioko Gaztetxean. Eurretari bat Itaiako kideek eurek eskainiko dute. Lan asistentzialaren inguruko informazioa sintetizatuko dute lehenengo berbaldian. Bigarren berbaldia, ostera, Bilboko Etxeko Langileen Elkartek eskainiko du. 11:00etan izango da lehenengo, eta 12:30ean bigarrena.

Itaiako kideen esanetan, "zaintzari, garbiketari edo hezkuntzari lotutako lanak emakumeen bizkar ipini dira historikoki", eta horrek "emakumea subjektu gisa debalutzea" ekarri du. "Etxeko lanak kapitalarentzako kosturik barik egiten dira. Emakumeen zapalkuntza egikaritzen da hor", diote.

M8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

MARTXOAK 3
MARTXOAK 10

EGUAZTENA

TAILERRA : "MINDFULNESS"

18:00-20:00

Euskaraz eta gaztelaniaz



MARTXOAK 8

ASTELEHENA

"ZALDIBAR INDARKERIA MATXISTAREN AURKA"

SEINALEAK:

EKIMENAREN AURKEZPENA

13:00

ELKARRETARATZEA

Artiako bidegurutzean

*IZENA EMATEKO

berdintasuna@zaldibar.eu

946 827 016

*MARTXOAREN 3AN ETA 10EAN, ADINGABEENTZAKO ZAINZA ZERBITZUA EGONGO DA, OTSAILAREN 26A BAINO LEHEN ESKATUZ GERO.

“Arriskatu egin naizela sentitzen dut, baina zortea izan dudala esan dezaket”

Olatz Salvador musikariak 'Aho uhal' aurkeztuko du zapatuan, Arriolan, 19:00etan; sarrera guztiak salduta daude



Olatz Salvador
Musikaria
Donostia | 1990

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Olatz Salvador musikari donostiarra oihartzun handia lortu du 'Aho uhal' bigarren diskoagaz. Ander Zulaika (bateria), Jagoba Salvador (baxua), Mattin Saldias (gitarra) eta Pablo Novoa (gitarra, programazioak eta sintetizadorea) ditu taldekide; Novoak ekoizle lanak ere egin ditu.

Zelan doa aurkezpen bira?

Hilabete joan da diskoa kaleratu eta lehenengo kontzertua eman genuenetik. Oso harrera beroa izan dugu lehenengo momentutik, eta oso pozik gaude jendeak emandako erantzunagaz. Kontzerturik gehienetan sarrera guztiak saldu ditugu, eta gehiago edo gutxiago gerturatuta

ere, publikoaren *feedback* positiboa jaso dugu.

Kostatu zaizue abestiak zuzenekotara moldatzea?

Egia esateko, ez, oso musikari onak dira eta. Gainera, gero zuzenean egin ezingo genukeen ezer diskoan ez sartzen ahalegindu ginen. Horrela, errazagoa izan da gero moldaketaren bat egitea. Baina ahalegindu gara diskoan egin genuenari begira fidelak izaten.

Ez da erraza izango publikoagaz konektatzea egungo testuinguruan.

Ez da erraza konexio hori lehenengo moduan sentitzea; ikusleek abestu arren, gugana ailegatzea ez da lehen bezain erraza eta. Badakit zer den publiko lez transmititu gura eta ezin hori. Beraz, ulertzen

dut beste aldean dagoenaren sententzia.

Diskoak oihartzun handia izan du hedabideetan, eta zaleen aldetik ere harrera beroa jaso du. Itxaroten zenuen?

Ez, uste dut ezin duzula inoiz horrelakorik espero. Zuk badakizu lan handia egin duzula, baina gero ezin duzu aintzat hartu jendea gustatuko zaion. Hori ezin da aurreikusi. Lan berri baten idazketa zerotik hasten dela uste dut, eta aurreko diskoagaz oinarri bat lortu arren, arriskatzeko ariketa bat da horrelako disko luze bat kaleratzea, hainbeste denbora eta energia eskaintzea erantzuna zelakoa izango den jakin barik. Alde horretatik, oso pozik nago.

Arriskatu egin naizela sentitzen dut, baina zortea izan dudala esan dezaket. Esaten den moduan, kuak jo duela. Babestua sentitu naiz eta oso pozik nago.

'Aho uhal' idazterakoan, igarri duzu presiorik edo bertigorik?

Bai, lehenengo diskotik bigarrenera pasatzerakoan ardura moduko bat sentitu nuen, gauzak ondo egin gura nituelako eta jendearen espektatiba bete gura nuelako. Jarraitzaileen gogoari erantzun gura nion eta hori ezinezkoa da. Bakoitzak bere gogoari, bere beharriari erantzun behar die, eta gero babestuko zaitu jendeak horrela gura badu. Norberaren barrutik irten behar du egia horrek, eta ni ahalegindu naiz hori errespetatzen.

Musikari dagokionez, hemen ere pop eta rock doinuak nabarmentzen dira, baina 'Zintzilik'-en lez, beste hainbat iturritatik ere edaten duzu. Aurretik harturiko erabakia da ala horrela irteten zaizu?

Nire kasuan, ez da aukeratu izan. Abesti bakoitzean murgildu ahala, abestiak eskatu didana ematen ahalegindu naiz; beraz, ez ditut abestiak egin modu arrazional batean pentsatuz. Instintiboagoa izan da aukeraketa hori. Neuzkan baliabideekin, abestiak eskatzen zuenaren arabera, doinu-espazio desberdinetan mugitu naiz. Egurra eskatzen bazidan, egurra; eta atmosfera eskatzen bazidan, doinu lasaia.

“

Abesti bakoitzean murgildu ahala, abestiak eskatu didana ematen ahalegindu naiz”

—

Disko honetan ere hainbat kolaborazio izan duzu.

Egia esan, kolaboraziorik gehienak izan aurretik nahikoa itxita zeuden abestiak, eta, alde horretatik, ez da aldaketa handirik egon. Ivan Ferreiroren kasuan ezik, gainerakoetan nahikoa erabakita geneukan zer egingo zuen bakoitzak. Hala ere, aldaketa handirik egon ez arren, beste tonu edo kolore bat eman diote, eta abestia aberastu egin dute kasu guztietan. Beste modu bateko energia ematen diete kolaborazioek, eta kolektibizatu egiten dute prozesua bera; gainera, hartu-eman horien bitartez asko ikasteko aukera sortzen da.

Asteburuan, neguko birako azken datak dituzue. Hemendik aurrera, zein da asmoa?

Laster data berriak iragarriko ditugu. Lotuta ditugun kontzertuak jotzeko gogoz gaude, baita agenda gehiago betetzeko ere. Formatu berdina mantentzen ahalegindu gara, baita talde formatu hau bera ere. Eszenografia bat daukagu eta argiak eta soinuak ere oso landuta ditugu. Esango nuke hauxe dela eskaintzeko dugun formaturik aberatsena.

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Iurretako XVIII. literatur lehiaketa

2021

LANAK ENTREGATZEKO EPEA:
Otsailak 19 - martxoak 1 (biak barne)

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**

Euskal antzerkigintza berrasmatzeko asmoagaz, Mikelotek eta Pantxok road movie zoroa eskainiko dute 'Ez dok ero' obran

Tartean antzerki konpainiaren 'Ez dok ero' antzezlanaz iazko udazkenean estreinatu zuten; Durangoko San Agustinen eskainiko dute, domekan eta astelehenean



Patxo Telleria eta Mikel Martinez. GUILLERMO CASAS

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

Ibilbide artistikoa eten, eta ohol-tzari agur esatea erabaki dute Mikelotek eta Pantxok. Pantxok argi eta garbi ikusten du une egokia dela erretiroa hartzeko, baina Mikelot ez dago errealtateari hain lotuta eta ez du iritzi bera. Euskal

antzerkigintzaren erreferentzia izaten jarraitzen dutela uste du, eta antzerkigintza berregiteko asmo zoroagaz, bere kidea *Ez dok ero* antzezlanean katigatzen du. "Gure ibilbidea aitzakiatzat hartzen dugu, euskal kulturaz eta antzerkiaz barre egiteko, ironia puntu bategaz",

azaldu du Patxo Telleria aktoreak. Pantxoren azalean sartuko da bera; Mikel Martinez Mikelote izango da. Telleriak berak idatzi du antzezlanaz, eta Jokin Oregik zuzendu du *road movie* formatuko obra. Bidaia horretan, hainbat toki bisitatzen dute, tartean Durangoko Azoka.

"Ibilbide fantastiko bat egingo dugu Euskal Herrian zehar, hamaika abentura ero biziz", azaldu du aktoreak. Mikeloteren imajinazioak sorturiko pertsonaia harrigarriekin gurutzatuko dira bidean, eta hamaika egoera korapilatsutan endredatuko da bikote artistikoa.

Udazkenean estreinatu eta gero, Durangora ailegatuko da, asteburu honetan. Emanaldi bi eskainiko dituzte, San Agustin kulturgunean. Lehenengoa domekan, otsailak 28, 19:00etan. Astelehenean ere eskainiko dute; bigarren hori ikasleentzat izango da.

'Sold out' garaia

Telleria pozik dago *Ez dok ero* antzezlanak orain arte izan duen harreragaz. "Uste genuenaren kontra, nahikoa ibilbide ona izaten ari da. Murrizketak hor daude, baina euskal antzerkiak badauka bere publikoa", azaldu du. "Hasieran, uste nuen publikoa mesfidatitago egongo zela maskaren eta distantzien kontuarekin, baina esango nuke inoiz baino jende gehiago joan dela antzezlanaz ikustera. Baliteke izatea jendeak ez duelako askoz ere aukera gehiago aisialdirako, baina orain arte obrak oso erantzun ona izan duela ikusi dugu", gaineratu du.

Erretiroa baino, hurrengo obra dute buruan Tartean konpainiako kideek. "Zorionez, izurriteak ez du eragin *Ez dok erorako* aurreikusitako planetan. Gehiago eragin du hurrengo lana izango den horretan, gure hasierako asmoa egokitu beharko dugu eta", esan du.

Gai librean

Dena esanda dago oraindik. Dena esateke dagoeneko

Behar dut idatzi. Sarri idazten dut, gogoz eta gogoz kontra, bakarrik na goenean eta jendearen aurrean irakurtzeko. Idazten ulertzen dut bizitza, idaztean ulertzen dut neure burua sarritan. Hitzak tentuz aukeratzen ditut batzuetan, eta besteetan, hitzek eramaten naute ni, amildegian. Kasik balorea hartzeko denborarik gabe. Hitzek bakea ematen didatela esan nahiko nuke, baina hainbat gerra libratu ditut nik haiekin. Norbera gudu zelai bihurtzen denean irabaztea zer den ez dakidanez, ezin esan nork irabazten zuen gerra haietan.

Idatzitakoa apurtu dut askotan, eta apurtzeko gogoa izan dut beste hainbatetan. Idatzitakoa ahaztu egin dut askotan, eta ahazteko gogoa izan dut beste hainbatetan. Gogoa izan dut gehiagotan. Hamaika orri zurirekin topatu naiz bidean,



Eider Chaves Gallastegui
Irakaslea

erantzunez baino, galderez betetako bide zurian. Orri zuriek beti eman didate errespetua, denaren eta ezerezaren materializazioa bailiran. Beldurra eman didate, heriotza eta jaiotza aurki nitza-keelako bertan, amaiera eta jatorria aldi berean, dena begien aurrean. Mutu eta gor, mutu eta gor egon gabe.

Baina gaur, ordenagailuaren aurrean plantatu naiz, eta udazkenak nola, ihes egin dit bat-batekotasunak

Eta, hala ere, idazten jarraitu dut. Hitzak nireak direla pentsatzera ere heldu izan naiz noizbait, hain neure egiten nituen. Gozatu egin dut, asko eta askotan, idaztean. Lagun minarekin terapia egitearen antzeko zerbait bihurtu da idaztea niretzat, korapiloak nasaitzearen antzeko zerbait. Elkar ondo ulertzen dugula uste dut.

Baina gaur, ordenagailuaren aurrean plantatu naiz, eta udazkenak nola, ihes egin dit bat-batekotasunak. Gaia aukeratuta nuen nonbait, izenburua ere ia pentsatuta, diskurtsoa ondo ikasita, hitzetik hortzera eta konbentzitutua nengoen. Baina gaur, idazten hasi naitzenerako, gorputza hezita aurkitu dut, etsita, hesiz eutsita. Epemuga eta luzera muga jarri didate eta blokeatu egin naiz. Biluzik, hutsik, geratu banintz bezala izan da. Joan egin zaizkit, hitzak, presioa sartzeagatik. Zenbat bider sakrifikatu ote ditut hitzak, zenbat bider berrerabili, birziklatu, masifikatu, erreproduzitu, kopiatu, objektu hutsalak zirelakoan.


Oraindik ere behar dut idatzi. Behar izaten jarraitzen dut. Behar dut idazten jarraitu.

Bi aukera nituen lehenengo ale hone-
tarako; kulturaren edozein gairi buruzko zutabea idaztea edo neure burua aurkeztea. Eskerrak lehena egin dudana...



merkataritza
gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

Ilusioz eta itxaropentsu, ikastetxeek eta kirol klubek zuhurtasunez jokatzeko deia egin dute eskola kirolaren bueltan

Durangaldeko eskola kirol adineko gazteak apurka-apurka itzultzen hasi dira orain urtebete alde batera utzi behar izan zuten dinamikara



DRTren Bambino Rugby Eskolak iazko martxoaren 11n izan zuen azken entrenamendua; datorren asteko eguaztenean bueltatuko dira. PEDRO MORENO

ESKOLA KIROLA • JOSEBA DERTEANO

Aspaldiko partez, eskola kirola bueltan da. Iazko martxotik, aste biko parentesi labur bat kenduta, debekatuta egon da 14 urtetik beherako talde kirol arautua praktikatzea. Panorama berriaren aurrean, kirol klubak eta ikastetxeak ilusioz daude, eta itzulera behin betikoa izatea itxaroten dute. Horretarako, erantzukizun kolektiborako deia egin dute.

Durango Rugby Taldeko (DRT) Bambino eskola datorren asteko eguaztenean ipiniko dute martxan berriro. Iazko martxotik geldirik dago. 120 ume zituzten orduan.

Orain izen-ematea abiatu dute berriro, taldeak osatu ahal izateko. Ikusteko dago zenbat apuntatuko diren, baina badituzte motiboak itxaropentsu egoteko. "Joan zen astean, 16 eta 18 urtez azpiko taldeekin entrenatzen hasi ginen. Urduri geunden, ez genekielako taldeekin hasteko nahikoa gazte itzuliko zen, baina sorpresa atsegina hartu genuen. Talde bien artean, 35 bat gazte batu ziren. Pentsatu gura dugu eskolagaz ere antzerakoa gertatuko dela", adierazi du DRTko Aratz Gallastegik. Kantitateaz gainera, gazteek entrenamenduan erakutsitako "gogo" ere azpimarratu du.

Aratz Gallastegi: "Joan zen astean, 16 eta 18 urtez azpikoak hasi ziren eta sorpresa atsegina eraman genuen"

Unai Zamalloa: "Gazteak desiratzen egon dira gustatzen zaien kirola euren lagunekin egiten hasteko"

Durango Kulturala klubeko futbol eskolako gazteak ere bueltatzeko "desiratzen" zeudela dio Oihana Buruaga eskolako kideak. Urtrilean saio bat izan zuten Durango eremu gorrian sartu aurretik, eta orain 55 umegaz bueltatu dira.

Ilusio berdintsua dute Kurutzia-ga Ikastolan ere. Joan zen astetik martxan da eskola kirola, eta aukera zabalagaz gainera: futbola, saskibaloia, eskubaloia, pilota, kirol anitzak... Ikastolako neska-mutikoak Durango atletismo pistara ere hasi dira joaten. 350 gazte dira guztira, eta "pozik" eta "gustura" dabilzala azaldu du ikastolako ki-

roletako koordinatzailea den Unai Zamalloak. "Euren lagunekin eta taldeagaz kirola egitearen premia zuten. Desiratzen egon dira. Orain arte, Ezkurdi plazan eta antzerako lekuetan batu izan dira, baina ez da berdina. Eskola kirolak dakarren taldeko giro hori beste gauza bat da. Ikustekoa da zelan gozatzen duten", adierazi du Zamalloak.

Ez da erraza hainbeste gazte zaintzea eta protokoloak jarraituz segurtasun neurriak zorrotz mantentzea (seiko taldeak gehienez, tenperatura hartu...). "Entrenatzaileak lan itzela egiten dabilzta eta eskerrak euri", dio Zamalloak. Horrez aurrera, boluntarioen eta gurasoen laguntza ere badute. Gero, klub bakoitzak bere neurri propioak ere hartzen ditu, segurtasuna handitzeko. Esaterako, Kulturalako futbol eskolan familia bereko umeak edo ikastetxe berean ikasten dutenak taldeetan elkarrengaz ipintzen ahalegintzen dira, burbuilak ahalik eta gehien errespetatzeko. Bambino eskolan, lehen, astero saio bi izaten zituzten adin tarte batzuetan, baina orain bategaz hasiko dira egoera berriari neurria hartu arte, eta aurrerago gehituko dute bigarren eguna.

Aurrera begira, eskolen eta kirolen arteko topaketak egiten hastea normaltasunean beste urrats bat ematea litzatekeela uste dute. "Eskola kirolean beste aberastasun bat litzateke", dio Zamalloak.

Denek nahi bat dute: oraingo itzulera behin betikoa izatea. "Horretarako, den-denok ipini beharko dugu geuretik apur bat", eskatu du Zamalloak.

Koikili Lertxundik bere hautagaitzako lantaldea aurkeztu du federazioko hauteskundera begira

Futbolari lotutako izenez inguratu da. Esaterako, Eba Ferreira Athletic taldeako jokalaria ohia de eurretari bat. Selektzioaren ofizialtasunean urratsak ematea da helburuetariko bat

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Martxoaren 1ean hauteskundeak egingo dira Euskadiko Futbol Federazioko presidentea eta zuzendaritza aukeratzeko. Hautagai bietako bat Koikili Lertxundi futbolari ohi eta enpresari otxandiarra da. Aste honetan, bere lantaldea eta programa aurkeztu ditu Derion eskainitako prentsaurrekoan.

Lertxundiren Bidean Team izeneko hautagaitza honako izen hauek osatzen dute: Eba Ferreirak, Asier Bikandik, Erika Otxoak, Ima-

nol Arregik, Asier Landak, Xabier Arrietak, Raul Guerrerok, Abel Ruiz de Arbulok eta Ane Ruiz de Arbulok.

Aukera berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa hartu du

Euren gidalerroen artean, besteak beste, "euskara, aukera berdintasunaren aldeko konpromisoa eta gardentasuna" daude, prentsaurrekoan azaldu zuten. Euskadiko se-

lekzioaren ofizialtasunaren bidean pausoak emateko konpromisoa ere erakutsi zuen beste neurri batzuen artean.

Bigarren hautagaitza

Hautagaitza bi aurkeztuko dira hauteskundeetara. Leioa kirol elkartearen presidentea den Javier Landetak osatutakoa da bestea. Jon Larrea Amorebieta futbol klubeko presidentea da hautagaitza horrek barneratzen duen lantaldeko kideetarikoa bat.



Koikili Lertxundi eta bere lantaldea Derioko Baserri Antzokian egindako aurkezpenan.

Bost gol sartuta, Iker Unzueta abadiñarrak geroago eta pisu handiagoa du Amorebietako hamaikakoan

Aurten lehenengo denboraldia du Amorebieta klubean zein Bigarren B Mailan, eta erronkaren neurriko maila erakusten dabil; apurka hasierako hamaikakoan finkatu eta azken partidu bietan hiru gol sartu ditu onenen artean sailkatuta dagoen futbol taldean



Iker Unzueta eskumeren, Amorebietako hainbat taldekidegaz batera. AMOREBIETA FUTBOL KLUBA

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO
Apurka-apurka futbolaren munduan izena eta tokia egiten dabil Iker Unzueta 22 urteko abadiñarra. Iaz, Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailarako saltoa eman zuen, Amorebieta klubaren eskutik. Erronka handia zuen aurretik, eta hasieran bere maila era-

kustea kostatu zitzaiola onartu du, baina denbora aurrera joan ahala eta golekin ematen duten konfiantzak hauspotuta, geroago eta gehiagotan sartu da hasierako hamaikakoan. Azken partidu bietan hiru gol sartuta, denboraldiko unerik gozoenean dago aurrelari abadiñarra.

Leioaren kontra sartutako lehenengo gola mugarriz izan zen eta bere mailak gorantz egin du harrezkero

Iazko abendua, ligako zortzigarren jardunaldia, mugarriz ipintzen du. Partidu hartan sartu zuen bere lehenengo gola, Leioaren kontrako berdinketan. "Liga hasieran ez nintzen hain ondo aritu eta Leioaren kontrako partidutik aurrera konfiantza hartzen hasi nintzen", adierazi

Bost gol sartuta, aldeko goleatzaile nagusia da Iker Unzueta abadiñarra

du. Apurka hasierako hamaikakoan sartzen hasi zen eta golak sartuta ordaindu du berarengan ipinitako konfiantza. Urtarril amaieran Amorebietak 2-1 irabazi zion Portugaleteri eta Unzuetak gol bat sartu eta bestea sartzeko asistentzia eman zuen. Bereziki emankorrak izan dira azken partidu biak, hiru gol sartua. Real Bri egindako bisitan gol dotorea sartu zuen, azpitik egindako erdiraketa bat orpoz errematatuz. Realak buelta eman zion partiduari eta gol hark ez zuen punturik batzeko balio

izan, baina joan zen asteburuan Alaves Bren kontra sartutako gol biei eskerrak Amorebietak hiru puntu baliotsu batu zituen. Unzuetak penaltiz sartu zuen gol bat eta eskuin hankagaz egindako jaurtiketa batezaz bestea. Azpimarratu beharrekoa da Koldo Obieta jokalaria gernikarraren ekarpena ere: gol bat sartu zuen, asistentzia bat eman zion Unzuetari eta berari egin zioten penaltia.

Bost gol sartuta, taldeko goleatzaile nagusia da Iker Unzueta abadiñarra. "Oso pozik nago eta gozatzen ari naiz. Gainera, joan zen asteburuan legez golekin partidua irabazteko balio badute, orduan eta hobeto", adierazi du futbol jokalaria.

Amorebieta onenekin

Datorren urtean maila berri bat sortuko da Bigarren Mailaren eta Bigarren B Mailaren artean. Bere izena Bigarren B Maila PRO izango da. Aurreneko hiru sailkatuak maila horretara zuzenean igaroko dira eta une honetan Amorebieta postu horretantxe dago, hirugarren, Athletic B eta Real B filial indartsuen atzetik. Bost partidu baino ez dira falta aurtengo liga amaitzeko.

Jokaldia

Kitto

Sarriegi entzuten ari gara ziklismo munduan, profesionalen artean batipat. Nahikoa dela iritzi dio batek baino gehiagok; jasangaitza egiten zaiola bizimodu hori, zinez ulergarria. Dena ez da urre goi mailako txirrindularitzan, asko eskatzen duen kirola delako. Alde batetik diziplina behar da eta bestetik pasioa. Umoretsu edo kopetilun, egun euritsu zein haizetsuetan lan saioa bete, eta burututakoa igorri behar zaio entrenatzaileari. Huts egiteko betarik ez dago; kontrola zorrotza da gero. Horri elikadurak hartu duen garrantzia erantsi.

Davide Cimolai italiarrak aitortu zuen, profesionaletara urratsa egin zuenean arazoak izan zituela. Pisua obsesio bilakatu zela (horrek dakarren desorekarekin) eta bizpahiru urte behar izan zituela egoera iraultzeko. Egun, nutrizionistek indarra hartu dute eta



Alfonsito Arrojo Monasterio
Kazetaria

"Dena ez da urre goi mailako txirrindularitzan, asko eskatzen duen kirola delako. Huts egiteko betarik ez dago"

"Pasioa eta oreka psikologikoa ezinbestekoak dira aurrera egiteko. Honen aurrean, Tom Dumoulinek ere kitto esan du"

zorionez ziklistak hobeto zainduta daude. Aitzitik, denboraldia amaituta ere ezin dute gutiziarik izan. Gero, taldeek urte hasieran antolatutako egonaldiak daude; normalean bi edo hiru astekoak izaten dira. Ondoren, altueran egiten direnak gehitu behar zaizkio (beste hamabost egun), baita itzuli handietako ibilbidearen ikuskatzeak ere. Lehia hasi

aurretik, ia bi hilabete etxetik kanpo. Behin sasoiari ekinda, egun apurak izaten dira etxeko epelean.

Eta zer esan presioaren inguruan. Liderra izanez gero, hori jasaten jakin behar da. Talde eta egitura osoaren etorkizuna norberaren bizkar gainean. Psikologikoki astuna. Emaitzen arabera izaten dira laudorioak eta kritikak; dena da zuri edo beltz, ez dago grisik. Azken urtean egindakoak bakarrik balio du. Inork ez ditu kontuan hartzen egindako sakrifizioa, familiarik urrun emandako denbora luzea edo bidean izandako oztopoak. Kale edo bale. Irabazteak bakarrik balio du gizarte honetan, hamargarren egiteak ez. Makina perfektuak izan behar dira talde buruak ez ezik, gainontzeko taldeki-deak ere. Pasioa eta oreka psikologikoa ezinbestekoak dira aurrera egiteko. Honen aurrean, Tom Dumoulinek ere kitto esan du.




LABIRINTOA



MOZORRO BAKOITZARI BEREA

Mozorro bakoitzari beheko
elementu bat dagokio





‘Ese no!’

ANTZERKIA **ABADIÑO** :: Otsailak 27

Adiskidetasunari eta hipokrisiari buruzko komedia

Banarte antzerki taldeak giza harremanei buruzko komedia dibertigarri bategaz igoko du oholtzara, asteburuan: *Ese No!* lana eskainiko dute, probalekuan, 19:00etan. Sonia Millamorrek zuzenduriko obrak adiskidetasu-

na, hipokrisia eta zekenkeria ditu berbagai. Afaltzeko elkarturiko lagun talde baten bitartez, bakardadean eta gizartearen indibidualismoan sakonduko dute, beti ere umorez. Sarrerak, Errota kultur etxean edo Udal Mediatekan.

Otsailaren 26an

ELORRIO antzerkia
‘Futbolistok’ (Zuhaitz Gurrutxaga), 19:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA ipuin kontaketa
Nerea Ariznabarreta ipuin kontalaria, 17:00etan, Herri Bibliotekan. 3tik 5 urtera arteko umeentzat (heldu batek lagunduta). 6 urteko umeentzat 2. saio bat hasiko da, 17:45ean.

IURRETA ipuin kontaketa
‘Sola Solae’ (Mon Mas), 19:00etan, Herri Bibliotekan. Helduentzako ipuin kontaketa saioa.

Otsailaren 27an

BERRIZ antzerkia
‘Celestina’ (La Escalera de Tijera konpainia) 19:00etan, Kultur Etxean.

BERRIZ ipuin kontaketa
Ipuin txokoa: ‘Bertoko eta urrutiko ipuinak’, 12:15ean, Kultur Etxean.

ELORRIO irteera
‘HILE 1 MENDI 1: Besaide’. Mendi irteera, 10:30ean, Elorrioko gaztetxeak antolatuta. Sortu zeneko 33. urteurreneko egitarauaren barruan.

ELORRIO musika
Olatz Salvador, 19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia
‘Ikimilikiliklik’ (Marie de Jongh konpainia), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 28an

DURANGO antzerkia
‘Ez dok ero’ (Tartean Teatro), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGALDEA deialdia
Errefuxiatutako sahararrei laguntzeko Karabana Solidarioa.

Aurten, izurria dela-eta elikagaiak batu barik, dirua batu dute. Otsailaren 28a da azken eguna ekarpenak egiteko. Bide bi daude ekarpen ekonomikoa egiteko. Bizum aplikaziora sartu eta sakatu “eman” botoia. Segidan bilatu Río de Oro elkarte (01955 kodea) eta eman dirua dohaintzan. Bestalde, Río de Oro elkartearen kontu korrontean sartu daiteke dirua. (ES90 3035 0129 11 1290034483).

Martxoaren 1era bitartean

IURRETA lehiaketa
Iurretako XVIII. Literatur Lehiaketa. Martxoaren 1a da lanak aurkezteko azken eguna. Ipuina, poesia, bertso-papera eta komikia, lau atal horietan parte hartu daiteke. Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) edo www.iurreta.eus webgunean aurkeztu daitezke lanak.

Martxoaren 3an

ABADIÑO ipuin kontaketa
Ane Gebara ipuin kontalaria, 17:00etan, Txanporta kultur etxean. 4-5 urteko umeentzat. LHko 1., 2. eta 3. mailako neska-mutilentzat 2. saio bat hasiko da, 17:45ean. Sarrerak martxoaren 1ean emango dira, Udal Mediatekan.

Martxoaren 5ean

ELORRIO antzerkia
‘Yo, nunca’ (Krisol konpainia), 19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia
‘Konpromisoa’ (Philippe Claudelen Komedia), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 6an

BERRIZ musika
Alice Wonder, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.


ZORNOTZA antzerkia
‘Koloreen doinuak’ (Zornotzako Musika Banda), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 7an

ELORRIO ikuskizuna
Ipuin dantza, 16:00etan, Arriola antzokian.

Martxoaren 14ra bitartean

DURANGO erakusketa
‘Alegiazko paisaiak eta ironiaren irudiak’ (Ramon Zuriarrainen margonalak), Arte eta Historia Musean.



Zine-

:: **Berriz**
KULTUR ETXEA

• **Elfkinak**
barikua 26: 17:00
domeka 28: 17:00

:: **Durango**
ZUGAZA

• **Pequeños detalles**
barikua 26: 18:45
zapatua 27: 17:00/18:45
domeka 28: 17:00/18:45
astelehena 1: 18:45
martitzena 2: 18:45
eguzatena 3: 18:30

• **Tierras altas**
barikua 26: 19:30
zapatua 27: 17:30/19:30
domeka 28: 17:30/19:30
astelehena 1: 17:30/19:30
martitzena 2: 19:30
eguzatena 3: 18:30

• **Cuatro manos**
barikua 26: 19:30
zapatua 27: 19:30
domeka 28: 19:30
astelehena 1: 19:30
martitzena 2: 19:30
eguzatena 3: 18:30

• **Ninja a cuadros**
zapatua 27: 17:00
domeka 28: 17:00

:: **Elorrio**
ARRIOLA

• **La chica del brazalete**
domeka 28: 19:00
astelehena 1: 19:00

• **Elfkinak**
domeka 28: 16:00

:: **Zornotza**
ARETOA

• **Mi niña**
barikua 26: 19:00
domeka 28: 19:00
astelehena 1: 19:00

• **Oker**
domeka 28: 12:00

ANBOTOkO agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

DURANGO 2 logela
DURANGO: Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Argitsua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Jantzia. Bizitza sartzeko moduan.
145.000€ C.E.E=F

DURANGO 2 logela
ARTZETAGAN: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongelajangela. Ganbara. Garajea eta trastelekua.
270.000€ C.E.E=F

DURANGO 3 logela
MENDIZABAL: 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handiak. Terraza. Ganbara. Garaje itxia.
269.000 € C.E.E= F

DURANGO 3 logela
ALDE ZAHARRA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Despentsa-trastelekua.
130.000 € C.E.E=F

DURANGO 3 logela
ARTEKALE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza komunitarioa. Bizitza sartzeko moduan.
198.000 € C.E.E=F

DURANGO 4 logela
F.J. ZUMARRAGA: 110 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Gaur egun 8 gelatan banatuta. Terraza komunitarioa. C.E.E: E
199.000€ C.E.E=F

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: San Inazio Auzunea. 3 logelako pisu ederra. Balkoi handia. Sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
DURANGO: Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.
DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.
GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitze. 10.000 m2. Ikuspegi izugarriak.
MAÑARIA: Aldegoiena auzoa. 7.500 m2. Baserri ederra, leku lasaia eta baketsua.
MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.
MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitza sartzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria, berrizatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzia. Estreinatze.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO

20 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 92,71 m²
MARTXOAREN 8KO KALEA: (antzinatasuna 12 urte) 3 logela, egongela, sukaldea jantzia, eskegitokia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. 18,30 m2-ko garaje itxia. Igogailua. Leku onean.
315.000 € C.E.E: Bidean

IURRETA 3 logela
68,62 m²
ZUBIAURRE: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Igogailua. Kontserbazio egoera onean. Leku onean. AUKERA.
146.000 € C.E.E: E. Bidean

DURANGO 67 m²
2 logela
SASIKOA: Sukalde jantzia, egongela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Hegoalde. Argitsua. 28 m2-ko garaje itxia eta 3m2-ko ganbara barne. Igogailua.
229.000 € C.E.E:E.

ABADIÑO 500 m²
ARANKURRI: ETXEBIZITZA BIFAMILIARRA (erdia) 320 m2 erabilgarri (sotoa, etxabea, lehen solairua eta estaldura azpikoa). Sukaldea jantzia, saloia, bost gela (bi gehiago egiteko aukera), hiru komun eta 40 m2-ko estalpea. Kanpora begira (Iparr-Hegoa) ARGITSUA. Bizitza sartzeko moduan. Auto birezako garajea.
490.000€ C.E.E: Bidean

MATIENA 2 logela
51,9 m²
TXINURRISOLO: egongela, sukalde jantzia eta komuna. 8 m2-ko ganbara. Erdia kanpora begira (Hegoaldera). Igogailua ipiniko dute. Bizitza sartzeko moduan. ALOKATU EGIN DAITEKE, EROSTEKO AUKEAREKIN.
96.000€ C.E.EE: Bidean

MUNTSARATZ 3 logela
81,7 m²
Arlozabal: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. 10 m2-ko ganbara. Eguzkitsua. Igogailua.
189.000 € C.E.E: E

//DURANGO

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**
ERRETENTXU KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. Igogailua. **185.000 € / E.E.E=E**
EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 300.000 € / E.E.Z=F**
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. **220.000 € / E.E.Z=E**

GOIENKALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **155.000 € / E.E.Z=E**

KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **130.000 € / E.E.Z=F**

MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m2-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**

TXIBITENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **250.000 € / E.E.Z=E**

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 342.576 € / ORAIN 278.000 € / E.E.Z=E**

//ATXONDO

ZIARRETA KALEA: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. **160.000 € / E.E.Z=G**

//ZORNOTZA

GUDARI KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Terraza. **240.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

ANDIKONA AUZO: Berreraikitze baserria. **460.000 €.**

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**

//IURRETA

FAUSTE AUZO: Baserria. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Lurzoruagaz. **300.000 € / E.E.Z=G**

OROZKETA AUZO: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

//MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 220.000 € / ORAIN 210.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

//BERRIAK

DURANGO

KOMENTU KALEA: 4 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela balkoiagaz eta komuna. **160.000 € / E.E.Z=G**



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 26 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	DOMIKA, 28 · 09:00-09:00
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
09:00-22:00	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	ASTELEHENA 1 · 09:00-09:00
ZAPATUA, 27 · 09:00-09:00	BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-13:30	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	MARTITZENA, 2 · 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	SAGASTIZABAL ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	09:00-22:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	EGUAZTENA, 3 09:00-09:00
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6 - ELORRIO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	EGUENA, 4 · 09:00-09:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARRIA SASIKOA 17, DURANGO
09:00-14:00	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	09:00-22:00
09:00-22:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Ari (838. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Zorionak, **Ekai**! Martxoaren 1ean bi urte egingo dituzu. Besarkada eta musu potolo asko familia- ren partez!



Gure etxeko sorgin txikiak 8 urte egin ditu otsai- laren 23an. Zorionak etxekoan partez eta ondo ospatu.

Eguraldia		
ZAPATUA 🌡️ 11° / 4° ☁️	ASTELEHENA 🌡️ 17° / 9° ☁️	EGUAZTENA 🌡️ 18° / 8° ☁️
DOMIKA 🌡️ 16° / 8° ☁️	MARTITZENA 🌡️ 17° / 8° ☁️	EGUENA 🌡️ 18° / 8° ☁️

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak



GAUZAK DIRENA BALIRA
Joseba Sarrionandia (Pamiela)



DENDAOSTEKOAK
Uxue Alberdi (Susa)



MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)



POESIA, ZAURIEN UKENDU
Ainhoa Urien (Pamiela)



SASIOLA
Mila Salterain (Alberdania)

“Arropa norberarentzat norbere gustura egitea abantaila handia da”

Iurretako XVII. Enpresa Proiektuen Lehiaketa irabazi ondoren, Mari Carmen Ordoñezek VAKASA mertzeria zabaldu zuen orain hilabete bi; guztira 6.000 euroko saria lortu du



Mari Carmen Ordoñez Delgado
VAKASA mertzeria
zabaldu du
Badajoz | 1961

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Mertzeria gaiak eta haurtxoentzako arropa saltzen dituzte Vakasa mertzerian. Gainera, josi eta arropak konpotzen ditu Ordoñezek. Jostunen lana baloratuta dagoen galdetuta, argi du erantzuna: “Diseinua egiteak, patroiak sortzeak eta arropa lantzeak bere lana du, eta lan hori guztia ez dago baloratuta”. Azken 54 urtean Iurretan bizi da, eta aurretik 16 urte eman ditu tabernan lanean.

Mertzeria zabaldu berri duzu, pandemiak baldintzaturiko sasoiari. Zelan erabaki zenuen jautzia egitea?

Daitona taberna izan dut 16 urtean, justu pandemia hasi baino lehen utzi nuen arte. Denbora batean lanik egin barik gonda, zerbait

egiteko premia nuen. Beti gustatu izan zait jostintzaren mundua, urteak egin ditut jostun. Bada, gaiari buelta batzuk eman ondoren, erabakia hartu nuen. Alabek ez zuten argi, bizi dugun egoeragaitik. Errieta ere egin zidaten, negozioak aurrera egingo zuen arduraz. Nik ere banuen zalantza. Baina oso pozik nago, uste dut funtzionatuko duela. Aurretik ere jostun aritu zara, beraz.

Bai. Etxean jostun lan egiten nuen, eta jantzigintza akademia bat ere izan nuen. 24 urtegar titulua atera nuen eta harrezkero jostigintzan lan egin nuen, uneko egoerak behartuta ostalaritzan sartu nintzen arte. Orain berritua heldu diot betidanik gustatu izan zaidan munduari.

Zelakoa izan da aldaketa tabernako barratik mertzeriako mostradorera?

Oso ona! Lasaiago nabil, lan erritmoa beste era batekoa da eta. Tabernako lanak jendea ezagutzeko aukera ematen du, hartu-eman asko izateko aukera. Baina oso lan lotua da. Ordu asko eskatzen ditu eta gauza asko jasan behar dira. Eta, askotan, psikologo lana ere egin behar duzu. Oso nekagarria da.

“**“Sasoi bateko arropa, urteetan armairuan sartuta egon dena ekarri didate dendara konpontzeko”**

Ohiko mertzeria gaiak topatu daitezke VAKASAn. Baina arropa ere konpontzen duzu.

Hala da. Mertzeria gaiak (hariak, orratzak...), emakume eta gizonentzako barruko arropa, galtzetak, pijamak, artilea... denerik daukat dendan. Haurtxoentzako arropa ere bai, apurka-apurka nabil horregaz. Gainera, hainbat enkargu izan dut arropa konpontzeko. Zabaldu dudana ez naiz geldirik egon, beti izan dut zer konpondu.

Zer da gehien eskatu dizutena? Zerk erakartzen zaitu gehien?

Praken barrenak hartzea, eta, batez ere, kremaileak aldatzea. Mahukaren bat konpontzea ere eskatu didate. Lan horiek ez dute denbora askorik eskatzen, baina dendako lanagaz batera egin behar ditut. Beraz, ohikoa baino denbora gehiago behar dut. Dena dela, patroiak sortzea, arropa egitea gustatzen zait gehien; soineko bat, gona bat lantzea. Hori egin gura nuke, baina ezin dut, oraingo behintzat. Aurrerago, negozioa ondo joanez gero eta lanerako beste pertsona bat hartzeko aukera banu, proba egingo nuen. Ez dut baztertzeko, baina gatz ikusten dut.

Azken urteetan, handitu egin da etxean dugun arropa konpontzeko joera?

Baliteke. Bizi dugun egoerak baldintzatuta. Sasoi bateko arropa, urteetan armairuan sartuta egon den arropa ekarri didate dendara konpontzeko.

Sasoi batean, arropa asko etxean egiten zen.

Bai. Iurretan jostun asko daude, oraindik konponketa txikiak egiten dituztenak. Askotan, neuretzat eta alabentzat josten nuen arropa. Baina gauzak asko aldatu dira. Denbora behar da arropa egiteko. Gainera, askotan, erosteak merkeago irteten du. Baina arropa norberarentzat egitea, norbere gustura, abantaila handia da. Bakarra izango da eta harrotasuna ematen du.

Internetek min handia egin du?

Dudarik barik. Interneten birtutez eskatuta, biharamunean etxean duzu. Korrika bizi gara eta momentuan gura dugu dena. Min handia egin du, bai.

Lauhortza

Bixente Aizpurua
Eguren
Irakaslea/ Jubilatua



Boluntarioak

Mundu honetan bizi garenon behar asko gobernuek betetzen ez dituztenez, milaka eta milaka boluntario ari dira gabezia horiek betetzen. Esparru hau baliatuz beraien lana goraiatu nahiko nuke.

Gazte edo ez hain gazte diren asko hor ari dira urruneko lurretan osasun, hezikuntza, bizi-baliabide eta abarreko hutsuneak betetzen. Gehienak musu-truk dabilta beraien urruneko neba-arreben gabeziak arintzen eta bizitza duin bat izan dezaten ahal egin eta indar guztiak jartzen.

Gehienak musu-truk dabilta beraien urruneko neba-arreben gabeziak arintzen eta bizitza duin bat izan dezaten ahal egin eta indar guztiak jartzen

Haratago joan barik gure inguruan ere asko dira Gobernu Kanpoko Erakundeetan lanean dihardutenak, elikagai bankuetan janaria biltzen edo herrietan banatzen, umeek kirola egin dezaten entrenatzaile lez, aisialdiko elkarteetan, era desberdinetako ikastaroak ematen, katekistak, konfinatuta egon ginenengan herritarren beharrei erantzuten. Eta horrela luzaroan jarraituko nuke, baina tokirik ez dudanez aipatu ez ditudan guztiak ere kontuan ditudanez, zuoi guztioi zorionak egiten dizuen lan erraldoiagatik eta eskerrik beroenak.

Egunero milaka eta milaka hazi solidario ereiten duzue eta itxaropen fruitu horiei esker mundu hobe bat lortzen ari zarete. Animo eta segi aurrera!

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com